


# Berrigara

## Urpean bisitari

Itsasoko  
altxorren artean



# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# ZORIONAK!

## BEDELKAREN zozketa

Ekainaren 27an egina.

Irabazlea:

**Pedro Aiukar**, gasteiztarra.

AZPEITXI Jatetxean emandako txartela izan zen saritua:

**151.970** zenbakia.



Olatz Beldarrain (Azpeitxi jatetxekoa), Pedro Aiukar (saritua) eta Julen Narbaiza (Bedelkarreko presidentea).

## SARIA

Astebukaera Donostian, bi lagunentzako.

Uztailaren 24, 25 eta 26an.

- ★ Maria Cristina hotelean (egukitza eta zapatua).
- ★ Bi afari, aukeratutako jatetxeetan.
- ★ Bazkari bat, aukeratutako jatetxean.
- ★ La Perlan termalismo tratamendua.



BILTOKIK bere bezero guztiei

**OPOR ZORIONTSUAK**

opa dizkie eta, bide batez, jakinarazi nahi die

**ABUZTUAN OPORRENGATIK ITXITA**

egongo dela.

Konponketak egiteko zerbitzu ofizialen telefonoak hauek dira:

<b>TB, bideoa eta soinua:</b>	943 20 82 75 - 70 14 98
<b>Elektragailuak:</b>	
Otsein-Candy:	943 19 29 23 - 902 10 01 50
Fagor-Aspes:	943 79 22 34 - 79 89 97
Aeg:	943 46 01 11
Corbero:	943 45 55 64
Zanussi:	943 45 81 06
Miele:	943 21 65 13
Phillips-Whirpool:	902 23 44 32
Liebherr:	944 45 55 64 - 45 36 04

**DEKORAZIOA-ALTZARIAK**

San Pedro plaza z/g.  
Tf. eta faxa: 943 76 43 51

**SUKALDEKO ALTZARIAK**

San Pedro plaza z/g.  
Tf. eta faxa: 943 76 34 00

**TB, BIDEOA, HI-FI SOINUA**

Barrenkalea 6.  
Tf. eta faxa: 943 76 25 96



# Hiperrak zertarako?

Arantzazu Loidi / Kazetaria

**H**iper" aurrizkiak "gehiegi" esan nahi omen du grekoz. Izen horrekin eta beste batzurekin ezagutzen ditugun merkatalgune handiak, horixe, gehiegi direla esaten dute gure herrietako merkatari txikiek, eta ez arrazoi bari-rikigoal. Baina horiek zertarako?

Aukera zabalagoa aurkitzeko, erosketa guztiak batera egiteko, eskaintza hobeak topatzeko... baina baita zapatu arratsaldea familian pasatzeko, gauza guztiak lekuz aldatu dituztenean ezer aurkitu ezinik ibiltzeko, behar ez ditugunak ere erosteko, eta aspaldian ikusi ez ditugun lagunak ikusteko ere. Garai batean feriak baserritarrei ematen zien egokiera ematen digu guri denda handiak: bata agurtu, besteari eupada bat bota, aspaldikoarekin berrikelaldia egin... hori behintzat ona da.

Baina azalera handiko saltokiez gain, hiperretako joera bestela ere oso zabaldurik dagoela iruditzen zait: hiper-kontsumoa, hiper-ondo pasatzea, hiper-entresak, eta hiper-komunikabideak. Komunikabideak, bietakoak, informazioa-edo garraiatzen dutenak eta joan-etorriarakoak. Aurrekoarekin ez du ezelako zerikusirik, baina neu azken honen kezkatzen nau gehien azkenaldian. Batez ere, abiadura haundiko trenaren eta autopista dontsu horren inguruan "-egi" askotxo ikus-

*"Abiadura haundiko trenaren eta autopista dontsu horren inguruan "-egi" askotxo ikusten da: azkarregi, isilegi, garestiegi, kaltegarri, lotsagabeegi"*

ten delako: azkarregi, isilegi, garestiegi, kaltegarri, lotsagabeegi. Eta tren delako, autopista delako, jendea axolagabe, pasota eta hotz, hotzegi ikusten dut; ez dut uste norberari zuzenean eragiten dionean bakarrik hartu behar denik ardura, norbaitek arazo pertsonala dudala esango badit ere. Gure inguruaren etorkizunak denoi eragiten digu, eta zuzen-zuzenean gainera.

Zapaturako autopistaren kontrako manifestazioa antolatzen dutenek "Zertarako?" galdetzen dute. Nik ere bai. Umetan ere, "zergatik" galdetzeaz aspertuta, "zertarako" galdetzen genuen, erantzunik ez genuela jasoko, edo "umea, ixilik!" erantzungo zigutela ia seguru jakin arren. Honetan ere beste hainbeste ari zaigu gertatzen, baina nik behintzat, zapatuan hori galdetzeko asmoa dut. B

barruan



## J. Mari Ugalde

Kimika Fisikoko katedraduna

*"Aurrera egiteko, ikerkuntzaren transferentzia lortzea beharrezkoa ikusten dut"*

8. orrialdean.




## Jon Lazkano

Eskalatzailea

*"Telebistarako egingo dudana hurrengo lanak Tibeteraino eramango gaitu"*

21. orrialdean.



## Josean Olabarria

Igerilekuetako tabernakoa

*"Gil y Gil ezagutzea gustatuko litzaidake, gaztetatik koltxoneroa naiz eta"*

29. orrialdean.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1901.** Uztailaren 21ean "Algodonera de San Antonio, S. A." enpresa sortu zen Bergaran, hasieran, bi milioi pezetako kapitalarekin. "Echaide y cía" konpainiako jabeekin eta Bilboko Chalbaud eta Obieta familietako sozioekin eratu zen enpresa. Lehen presidentea Pedro Chalbaud izan zen.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1622.** Uztailaren 14an Arantzazuko eliza erre egin zen.  
**1894.** Uztailaren 14an abertzaleek Bilbon lehen aldiz ikurriña jarri zuten.  
**1964.** Uztailaren 18an ikurriña jartzeagatik Joseba Elosegi espetxean sartu zuten.

### MUNDUAN GERTATUA

**1713.** Uztailaren 13an Utrecht-eko ituna sinatu zen: Espainiak Gibraltarreko haitza eta Menorka eman zizkion Ingalaterrari Madrilan.

### zozketak

#### BONO LOTO

**Eguakitzita 10**  
 13-16-31-34-41-44 (osag.5/er.6)  
**Astelehena 13**  
 2-7-9-10-16-38 (osag.18/er.3)  
**Martitzena 14**  
 12-14-17-26-36-39 (osag.22/er.1)  
**Eguaztena 15**  
 4-8-13-35-38-45 (osag.9/er.0)

#### PRIMITIVA

**Zapatua 11**  
 1-6-28-30-44-45 (osag.42/er.1)  
**Domeka 12 Gordoa**  
 8-10-11-13-18-21 (osag.23/er.2)

#### ONCE

**Eguakitzita 10:** 36.120 (K. seriea: 094)  
**Astelehena 13:** 37.733  
**Martitzena 14:** 23.010  
**Eguaztena 15:** 31.565

## Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Zeruan laino batzuk agertuko bazaizkigu ere, urdinguneak nagusituko dira astebukae-ran. Goiz partean hodeiak ugariagoak izango dira eta egunak aurrera egin ahala zerua garbitzen joango da. Tenperaturak gora egingo du.

## Ilargiaren aldiak

- Ilbehera: uztailak 16
- Ilberri: uztailak 23
- Ilgora: uztailak 31
- Ilbete: abuztuak 8

## Eguzkia

Domeka, uztailak 19



Sortu: 07:03



Gorde: 21:43

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 9</b>	22	22	-
<b>Eguakitzita 10</b>	24	24	-
<b>Zapatua 11</b>	25	25	-
<b>Domeka 12</b>	30	30	-
<b>Astelehena 13</b>	24	24	6,3
<b>Martitzena 14</b>	21	21	-
<b>Eguaztena 15</b>	26	26	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Aittiaren batian

Oso azkar (aittiaren egiten tardatzen den denboran, literalki).

Baita "Aittiaren eñ orduko".

- Gaurko lapikuekin aittaren batian gertatzen da jatordua.



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Pilarik gabeko linterna

Trevor Baylis asmatzaileak kaleratutako malguki-irratia oinarri bezala hartuta, Baygen enpresa britainiarrak printzipo bera aplikatu du "Freeplay Power Lantern" linternan. Linterna hau, 25 segunduz giltza eman eta lau minutuz argia emateko gai da. Oraingoz, Britainia Haundian bakarrik dago salgai eta prezioa 10.000 pezeta ingurukoa da.

## Farmaziak

### Eguakitzita 17:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.  
 GAUEZ: MORALES, Arrasate. Tf. 943 79 18 65.

### Zapatua 18:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67.  
 GAUEZ: AMEZUA, Arrasate. Tf. 943 79 09 74.

### Domeka 19:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67.  
 GAUEZ: ZABALA, Arrasate. Tf. 943 77 16 30.

### Astelehena 20:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.  
 GAUEZ: RUIZ, Arrasate. Tf. 943 79 14 08.

### Martitzena 21:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.  
 GAUEZ: MORALES, Arrasate. Tf. 943 79 18 65.

### Eguaztena 22:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67.  
 GAUEZ: AMEZUA, Arrasate. Tf. 943 79 09 74.

### Eguena 23:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.  
 GAUEZ: ZABALA, Arrasate. Tf. 943 77 16 30.

## Ogia

Domeka 19: Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 43
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 75
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85


# zorion agurrak



**Enaitz Agirre**  
Uztailaren 26an  
17 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Ismael Navas**  
Uztailaren 9an  
7 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Garikoitz Lete**  
antzuolarrak  
uztailaren 22an  
27 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Ana Perez**  
Uztailaren 7an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Marian  
eta Araceli.



**Jon Garcia**  
Uztailaren 17an  
7 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Maria Asun  
Narbaiza**  
Uztailaren 19an  
urtebetetzea. Zorionak!  
Familiakoak.



**Miren Errasti**  
Uztailaren 9an  
4 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Maddi Mujika**  
Uztailaren 15ean  
4 urte. Zorionak!  
gure larrosatua!  
Etxekoak.



**Aritz Rodrigo**  
Uztailaren 18an  
urtebetete. Zorionak!  
Lehengusina Iraia.



**Ilya Maslov**  
Abuztuaren 13an  
12 urte. Zorionak!  
Hodei, Aitzol  
eta etxekoak.



**Maddi Garcia**  
Uztailaren 19an  
urtebetete. Zorionak!  
Etxekoak.



**Amaia  
Amasorrain**  
Uztailaren 16an  
12 urte. Zorionak!  
Itziar eta Joane.



**Alain Carazo**  
Uztailaren 29an  
11 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Nekane Varela**  
Uztailaren 21ean  
7 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Isabel Cambonel**  
Uztailaren 8an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Etxekoak.



**Jon Muñoz**  
Uztailaren 26an  
11 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Iranzu Bolaños**  
Uztailaren 25ean  
9 urte. Zorionak!  
Gurasoak  
eta ahizpak.



**Eztzen Bolaños**  
Uztailaren 27an  
14 urte. Zorionak!  
Gurasoak  
eta ahizpak.



**Maite Irizar**  
Uztailaren 13an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Koadrilakok.



**Ane de la Rosa**  
Uztailaren 18an  
7 urte. Zorionak!  
Gurasoak.



**Mirentxu**  
Uztailaren 19an  
24 urte. Zorionak!  
Koadrilakok.



**Enrique Lete**  
Uztailaren 15ean  
76 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Maite Ezkurra**  
Uztailaren 1ean  
1 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Eneko Zabaleta**  
Uztailaren 8an  
5 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Esteban Igartua**  
Uztailaren 16an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



**Ibai Larrañaga**  
Uztailaren 16an  
11 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Irati Lenisoro**  
Abuztuaren 6an  
3 urte. Zorionak!  
Naiara, Hodei, Aitzol  
eta familiakoak.



**Karmele Zabaleta**  
Uztailaren 16an  
24 urte. Zorionak!  
Koadrilakok.



**Aitor Iglesias**  
Uztailaren 22an  
6 urte. Zorionak!  
Antzuolako eta  
Bergarako familiak.



**Josu Elorza**  
Abuztuaren 10ean  
7 urte. Zorionak!  
Maite eta Etxekoak.



**Nerea Marzo**  
Uztailaren 17an  
1 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta  
amaia Jon.



**Shere Moreno**  
Uztailaren 23an  
15 urte. Zorionak!  
Aitona, guraso eta  
amaia Jon.



**Julio Jose  
Molegaceres**  
Uztailaren 20an  
20 urte. Zorionak!  
Ama-alabak.



**Maite Garitano**  
Uztailaren 19an  
9 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Igor Castellano**  
Uztailaren 16an  
31 urte. Zorionak!  
Etxekoak eta Iosu.



**Iosu Dominguez**  
Uztailaren 20an  
urtebetete. Zorionak!  
Familiakoak.



**Mikel Salegi**  
Uztailaren 19an  
12 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Aitor Sanchez**  
Abuztuaren 25ean  
20 urte. Zorionak!  
Antzuolako lagunak.

## hildakoak

**Juan Maria Loiti Agirre**  
Uztailak 11, 63 urte.  
**Hilario Orbea Gallastegi**  
Uztailak 11, 74 urte.

## jaiotakoak

**BERGARA**  
**Unai Lizarralde Iturbe.** Uztailak 11.  
**ANTZUOLA**  
**Enara Beitia Irizar.** Uztailak 4.

## URTEURRENA

# Antonio Kortabarria Azkarate-Askasua

Lehen urteurreneko meza  
domekan, uztailak 19,  
goizeko 09:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko familiakoen partez.*

## MUSIKA

► **Eskizofrenia rock eta Matadero** gaur, eguakitza, 23:00etan Pol-Polen.

► **Arakajun** domekan 22:00etan Soraluzeko Gatzelupe tabernan.

## BERTSOAK

► **Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Jon Maiarekin** "Bertso trama" eguenean, hilak 23, 22:00etan Soraluzeko Gatzelupe tabernan.

## ERAKUSKETAK

► **Juan Jose Altunaren** margoak Elorrioko Arriolan, uztailaren 27ra arte.

## IKASTAROAK

► **Piraguisimo ikastaroak** Albinan, uztailean. Izenematea: 943 76 44 65 (Alex).

## LEHIAKETAK

► **Jubilatuen kultur hamabostaldirako kartel lehiaketa.** Lehiaketaren gaia "Beti dago pauso bat gehiago ematea" izango da eta ondorengo testua azaldu beharko da kartelean: "Antzuola eta Bergarako Jubilatuen II. Kultur Hamabostaldia. 1998ko

SANTA MARINA JAIK

## Euskal Herria Kantuz

**Noiz: zapatuan, 22:30etan, Frontoian**  
**Sarrera: 500 PTA**

"Euskal Herria Kantuz" izenburupean, Gasteizko Alaitz abesbatzak, Etxarri Aranaz abesbatzak, Gernikako Andra Marik, Baionako Xaramelak eta Aritzetak kontzertua eskainiko dute bihar Frontoian. Antolatzaileek Iparraldeko zein Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako ordezkariek bildu nahi izan dituzte eta biharkoaren ondoren, baliteke gonbidatutako abesbatzen herrietan ere jaialdi bera antolatzea.

Xamatx dantza taldeak "Ikurrin dantza" eskeiniko du jaialdiaren hasieran eta ondoren, talde bakoitzak "a capella" launa pieza abestuko ditu. Jaialdiari amaiera emateko, abesbatzek, Orkestra Sinfonikoaren laguntzaz, Borodin konpositore errusiarraren "El principe Igor" (Danzas guerreras) izenburuko lana eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek eta Juan Martin Elexpuru-ek idatzitako "Euskal Herria Kantuz" interpreta-

tuko dute. Eskenatokian 300 lagun inguru bilduko dira eta jaialdiak ordu t' erdi inguruko iraupena izango du.

Bestalde, Santa Marinako jaiekin jarraituz, gaur 20:30etan haurren tanborrada izango da, 23:00etan suzko erroberak eta ondoren Lisker taldearekin dantzaldia. Zapatuan, 10:30etan Udal Bandaren kalejira, 11:30etan Meza herriko korporazioarekin, 12:00etan kukainak, 12:30etan Bandaren kontzertua, 16:00etan txirridulari lasterketa eta 18:00etan waterpolo neurketak igerilekuan. Gaueko erromeria "Traileko 6" taldeak alaituko du. Domekan, 10:00etan plater jaurtiketa Gorlan, 11:00etan waterpoloko finalak jokatu dira, 11:30etan meza, 12:30etan salda eta txorizoa Simon Arrietan eta Xamatx dantzaldia. Arratsaldean, berriz, jubilatuetan sari banaketa 4retan eta jarraian umendako zezanak eta poniak. B



Etxarri Aranaz abesbatza, zapatuan pilotalekuan izango den koroetako bat

urria-azaroa". Teknika librea erabili ahal izango da. Epaimahaiak 75.000 pezetako sari bakarria emango du. Lanak San Joxepe jubilatuen elkartearen aurkeztu behar dira, irailaren 7tik 11ra bitartean. Argibideak: 943 76 21 40.

## DEIAK

► **Eibar-Gasteiz autopistaren kontrako manifestazioa** zapatuan 19:00etan Arrasaten. EHNE, Eguzki eta Gatzaga Landako bizilagunak taldeek deituta.

► **Gestorek dei egiten dute** bihar, zapatua, euskal presoen Euskal Herriratzea aldarrikatzeko Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko. Bergaratik autobusak 15:30etan aterako dira Frontoitik.

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## AGOITZ

### Tapizdenda

Leizariako San Lorenzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47

► **Pol-Polen akanpada** uztailaren 25 eta 26an. Argibideak Pol-Poleko bulegoetan: 943 76 48 51.

► **Buztigintza** erakustaldia eta erakusketa Elgetan bihar, zapatua, 10:00etatik 15:00ak arte.

► **Ehiza txakurren lehia-keta** domekan 9:30etan Elgetan, Antzuategi base-miaren zelaietan (Salbador ermitaren ondoan).

► **Odol ateraldia** eguazte-nean, hilak 22, 18:30etan Seminarioan. Hurrengo odol ateraldia abuztuaren 5ean izango da.

► **Jubilatuentzako bidaiak Lisboako "Expo" a bisitatzer.** Irailaren 27ra bitartean hainbat txanda izango dira. Izen-ematea eta argibideak Marsans bidai-agentzian: 943 45 65 93 eta 943 42 38 38. Dirulaguntza jasotzea tokatzen zaienak San Josepe elkartein egin beharko dute eskaera. Telefonoa: 943 76 21 40.

► **Peregrinazioa Arantzazuko Santutegira eta Loiolako Santutegira bisita** uztailaren 25ean. Irteera Bergaratik 9:30etan, autobus geltokitik. 12etan Meza Nagusia, 14:00etan bazkaria hospederian eta 17:30etan Loiolara irteera. Itzulera, 20:00etan. Autobus txartelak 850 pezetan eta erromesen bazkari-

koak 1.800 pezetan salduko dira. Izen-ematea San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon, Barrenkaleko Zatoian eta Matxiategiko Gube drogerian.

► Debagunek **"Itsasotik itsasora"** gazteei zuzendutako bizikleta martxa antolatuko du abuzturako. Abuztuaren lehen trenea hartu eta Gironara heldu ondoren, bertatik Hondarribirainoko martxari hasiera emango zaio. Izen-ematea astelehenera arte zabalik. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 zenbakian.

► **Justo Garate Arriola beka.** 1998ko deialdian soziologiako gaiei zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz egingo da. Dokumentazioa aurkezteko epea, irailaren 1etik 30era. Argibideak: 943 77 91 58.

► **Joseba Jaka II. Literatur Bekak,** euskaraz sortutako olerki, eleberrri, saiakera edota gazte-literatur lanei zuzenduta. Idazle bakoitzak alor bakoitzeko proiektu bat aurkeztu ahal izango du, baina ezingo du beka bat baino gehiago jaso. Proiektuak abenduaren 19ra bitartean bidali ahal izango dira, ondoko helbidera: Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa. Portuete kalea, 88. 20009 Donostia. Argibide gehiago 943 21 94 27 telefonoan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### Legitima defensa

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

##### El gran Lebowski

Uztailak 24: 22:30.  
Uztailak 25: 17:00, 19:30, 22:30.  
Uztailak 26: 17:00, 19:30, 22:15.  
Uztailak 27, ikuslearen eguna: 19:30.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Washington Square

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.

##### El gran Lebowski

Martitzena: 19:00, 21:30.  
ARRASATE. Monterron  
Perdita Durango  
Eguena: 22:30.

#### EIBAR. Unzaga

The Brave  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Caza al terrorista

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

##### El gran Lebowski

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00  
Astelehena: 20:00.

#### AZKOITIA. Bazartxo

##### Flubber


Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
Deep impact  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

### LEGITIMA DEFENSA

**Zuzendaria:** Francis Ford Coppola

**Aktoreak:** Matt Damon, Claire Danes, John Voight, Danny DeVito.

John Grisham idazle arrakastatsuen nobelan oinarritutako filmea. Rudy Baylor (Matt Damon) Fakultateetik irten berria den abokatu idealista dugu eta bere ametsa dirudun bezeroak lortzea da. Shifflet-en (DeVito) laguntzaz, erreturto ekonomikorik ez duen jendea esplotatzen duen aseguru etxe bati aurre egingo dio, sistema osoa hankaz gora jarritz...



### EL GRAN LEBOWSKI

**Zuzendaria:** Joel Coen.

**Aktoreak:** Jeff Bridges, John Goodman, Julianne Moore, Steve Buscemi.

Fargo filmaren arrakastaren ondoren, Coen anaiek egingdako azken lana. Berriz ere pertsonaia xebreak aurkezten zaizkigu. Boloetan jokatzea gustoko duen galtzaile bati (Jeff Bridges), bere izen berdina duen aberats zahar bat delakoan, dolar mordo bat poltsikoratu ahal izango du... Hala ere, agindutako lana betetzean, berak eta bere lagunek sekulako nahastea sortuko dute.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
%10EKO BEHERAPENA  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

**Jesus Mari Ugalde ber-gararrak (40 urte) Eusko Legebiltzarrak eta Eus-kal Herriko Adiskideen Elkarteak banatzen du-ten Xabier Maria Muni-be saria jasoko du uda ostean. Epaimahaiak Ugaldek kimika kuantikoaren gainean dara-man ikerlari jarduera goraipatu du.**

**G.** Zer suposatu du sari hau irabazteak?

**E.** Egia esan, ez nuen espero; sorpresa galanta eta pozgarria izan da.

**G.** Kimika kuantikoaren inguruan egindako lanagatik eman ei dizute saria.


**E.** Lan teorikoa da nik nagusiki egiten dudana. Ordenagailu eta teoriaren bitartez, molekula berriek izan ditzaketen propietateak aztertzen ditugu: atomoak zela dauden (kimika estrukturala deritzana), propietate elektronikoak (elektroiak zela antolatzen diren eta nola kokatzen diren espazioan nukleoaren inguruan) eta, honekin lotuta beste hainbat propietate, espektro fotoelektronikoa (argia nola absorbatzen duten) esate baterako. Kimika teoriko aplikatua da guk egiten duguna. Bestalde, teoria kuantikoa ere garatzen dugu, distribuzio elektronikoak estudiatuz eta pantailatze efektuei (elektroiek zela pantailatzen dituzten elkarrekintza elektrikoak) buruzko teoriak eginez.

**G.** Zuen ikerketa gaiak nori zuzenduta daudei?

**E.** Bi helburu ditu gure lanak: alde batetik esperimentalistei bidea argitu eta bestetik teoria garatu egiten dutenei lagundu. Jendearengana ere heltzen da gure lana, jakina, emaitzak herriaren mesederako baitira. Nik beti adibide bat jartzen dut: 100 urte dira elektroia

JESUS MARI UGALDE  
Kimika Fisikoko katedraduna

*“Kimika Fakultatean ikerkuntzarako jendea, gogoia eta giro aproposak daude”*



Kimika Fisikoko katedraduna, Kimika Fakultateko dekanordea da Ugalde.

aurkitu zenetik eta gaur egun munduko ekonomia-  
ren %10a elektroien inguru-  
an antolatzen da.

**G.** Ikerkuntzarako medio egokiak al daude?

**E.** *Comme ci, comme ça.* Nik medio gehiago egotea nahi nuke, dudarik ez. Baina egun badago zerbait eta dagoenarekin gauzak egiten daitezke. Egia da beste

**“Aurrera egiteko ikerkuntzaren transferentzia egitea beharrezkoa ikusten dut. Gobernuak saioak egin ditu, Madril-en ezetza jasoz”**

hainbat herrialdeetan guk baino askoz ere gehiago inbertitzen dutela ikerkuntzan. Euskal Herrian Barne Produktu Gordinareneko %1 bideratzen da ikerkuntzara (Espainian oraindik gutxiago) eta Suedia, Norvegia edota Finlandian, berriz, %3aren inguruan dabilza.

Aurrera egiteko beharrezkoa ikusten dut ikerkuntzaren transferentzia egitea. Euskal Gobernuak horretarako saioak egin ditu baina oraingoz Madril-en ezetza jaso du. Hori aldarrikatzeko babesa eman behar zaio gobernuari.

**G.** Ikerlarien lana behar beste baloratzen al da?

**E.** Sari honekin nire lana gehiago baloratuko dela usate dut baina oraindik hainbat jende ez du ulertzen unibertsitateko irakasle bat zer den. Urte guztian lanean aritzen gara eta, ikasturtea amaituta, fakultatean jarraitzen dugu ikerkuntza lanean. Irakaskuntza eta ikerkuntza tartekatzen ditugu eta irakaskuntza gure lanaren zatirik txikiena litzateke.

**G.** Etxenike Asturiaseko Printze Saria, orain zuri emandako hau. Ibaetan ikerlari harrobia al dago?

**E.** Etxenikeren taldea munduko edozein fisikari talderekin konparatzeko modukoa da. Egia da Kimika Fakultatean badagoela jendea, gogoia eta giroa, jarrerak kolektibo bat. Euskal Herri mailan etekin altuko ikerketa taldeentzat izaten diren laguntzen erdia hona iristen da eta 70 irakasle besterik ez gara. Fakultatean gazte gaztetatik mundu honetan heitzeko aukera dago, nazioarteko esperientzia ere ezinbestekoa da eta, bestalde, gure dekanorenen eraginez, kalitate integralko plan batean sartu gure etorkizuna bermatzeko asmoz. B



# Hirugarren mundurako laguntzak bost talderen artean banatuko dira

## Udalak 5,5 milioi pezeta banatuko ditu aurten

**Gobernuz kanpoko erakundeek banatzen zaizkien diru laguntzen berri eman du Bergarako Udalak. Aurten 5.549.999 PTA bideratuko ditu Udalak hirugarren mundurako.**

Alde batetik, hirugarren munduko herrialdeetan kooperazioa lantzeko eta, bestetik, gaiari buruzko sentsibilizazio kanpainak antolatzeko bideratuko dira laguntzak. Kooperaziorako 9 proiektu aurkeztu dira eta sentsibilizaziorako, berriz, bi proiektu. Kooperaziorako (4.994.999 PA guztira), honako lau erakundek jaso dituzte dirulaguntzak: Oscar Romero, Fisc fundazioa, Acción Verapaz eta Komite Internazionalistak. Sentsibilizaziorako (455.000 PTA), gostera, beste bi hauek: Komite Internazionalistak eta Mugen gaineratik.

Oscar Romero taldeari 1.513.485 PTA egokitu zaizkio El Salvadorreko nekazal herrialde marginatueta etxebizitzak eraikitzeko. Fisc fundazioak 1.211.287 PTA jasoko ditu Managuako Ciudad Sandino auzoan



Hirugarren munduan bizi diren emakumeak hezitzeko proiektu bati ere eman zaio dirulaguntza.

ARTXIBOA

emakume familiaburuak alfabetatzeko. Acción Verapaz taldeak, beste hainbeste diru jasoko du Dominikar Errepublikan, Seybo herrian, irrti lokalerako energia sortzeko aparailua erosteko. Azkenik, Komite Internazionalistak taldeari 1.058.940 PTA emango zaizkio, Mendebaldeko Saharako bake plana ezartzeko prozesuari laguntzeko. Errefuxiatutako populazioari ga-

rraiobideak errezteko ibilgailuen dotaziorako bideratuko dute dirua.

### Sentsibilizazio kanpainak

Bestalde, Komite Internazionalistak (323.565 PTA) eta Mugen gaineratik (231.435 PTA) erakundeek ere emango zaizkie diru laguntzak, Bergaran hirugarren munduarekiko sentsibilizazio kanpainak antolatzeko.

Proiektuak baloratzeko irizpideak honako hauek izan dira: gure herriko edo inguruko herrietako pertsonak izatea proiektuetako partaide; proiektuen helburua ingurugiroa, heziketa, osasun eta higiene baldintzak, oinarritzeko beharrak eta azpiegitura lanak hobetzea izatea; azkenik, partaidetza eta komunitate hartzaileko kideen formazioa bultzatzea. B

**DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**KONDE**  
P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A  
  
Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitsitegia  
Ibargarai 2  
943 6 51 65

**ONENA**  
TINTATEGIA  
Barrenkalea 29 BERGARA



Aritzetako San Migel azpian tunela eraikiko da ekialdeko saihsbidea egiteko.

## San Antonioko barianteko lanak 2001. urtean hasiko dira

### Udalak hainbat alegazio egin dizkio proiektuari

**Bergarako** ekialdeko saihsbideari buruz, aurtengo urtarrilean onartutako alegazioak berretsi eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu departamentuan aurkeztea onartu zuen Udalbatzak joan zen eguakitzean. Osoko Bilkura eguerdian izan zen eta HBko zinegotziak ez zuten parte hartu, lan orduetan ezin dutelako joan.

Beasainetik Durangora doan errepidearen (GI-632) Bergarako ekialdeko barianteak, ingurugiroan duen eraginaren adierazpenentzako alegazioak aurtengo urtarrilean onartu zituen Udalak. Orain, ostera, alegazioak Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu departa-

menduan aurkezteko hila-beteko epea zabaldu da eta urte hasieran hartutako erabakia berretsi egin zuen joan zen eguakitzean Udalbatzak.

Bariante berria Galartzatik Labegaraietako tileria zaharrera arte joango da eta Aritzetako San Migel azpitik pasatuko da. Bergara eta Ormaiztegi arteko errepidea eta ekialdeko bariantea autobidea izatea, hau da, lau karriletakoa izatea eskatu du Bergarako Udalak. Gipuzkoako Diputazioak, norabide bakoitzean karril bakarrekota eta Deskargan poliki doazen ibilgailuentzako beste karril bat egitea aurreikusi du. Bestalde, Errepideen Plan Orokorrean,

ekialdeko saihsbidea Eibar-Gasteiz autopistarekin lotzen da eta Bergarako Udalak bariantea Beasain-Durango errepidearekin lotzea eskatu du.

Honekin lotuta, esan dezagun, joan zen astean jakin-genuela Ormaiztegi eta Bergara lotuko dituen errepide berria 2009. urtera arte ez dela Bergarara helduko. Hasi-iera batean, 2002. urterako amaituta egotea espero zen, baina obra atzeratu egin da. Honek Urolako eta Antzuola eta Bergarako alkateen haserrea piztu du. Bergarako ekialdeko bariantearen obrak ere, datorren urtean hasi beharrean, 2001. urtean hasiko dira eta lanak egiteko bi urte beharko dira. B

## Hainbat txikizio San Martzialeko erromerian

**Jai batzordeak** jakinarazi duenez San Martzialeko erromerian hainbat apurketa eta materialen desagerketa izan dira: taulatu-erremolkeari gurpil guztiak zulatu dizkiote eta aulki eta mahai asko faltatu dira eta beste asko apurtuta agertu dira. Horretaz gain, kantina eta txoznako sarrerak behartu eta barrura sartu dira.

## HBren 20. urteurreneko ekitaldia

**Joan zen** eguakitzean, 50 lagun inguru bildu ziren Herri Batasunaren 20. urteurrenaren inguruan Artatsen egindako hitzaldi-solasaldian. Bertan, Jesus Mari Garrantano eta Aitor Aranzabal zinegotziek alderdiaren barruan itxaropen eta ilusio berriak sortzearen garrantzia aipatu zuten. Herri mailan, berriz, Udalean HBk jasaten duen bazterketa salatu zuten eta, EAJk jarrera berarekin jarraitzekotan, legealdia amaitu bitartean egungo egoerak okerrera egingo duela aurreratu zuten.



# Udala Justizia Ministerioarekin auzitan, intsumisioa dela eta

## Abokatua izendatzea onartu du Udalbatzak

**Udal Intsumisioen Elkar-  
tearen (Eudima) aurka  
Justizia Ministerioak  
ezarritako errekurtsoa-  
ren aurrean, bere burua  
agertzea eta, horretara-  
ko, abokatua izendatzea  
erabaki zuen Udalbatzak  
astelehenean.**

Aitor Garin izango da Bergarako Udalaren abokatu-  
a. Ez ohiko Osoko Bilkura  
arratsaldeko 7etan izan zen  
eta HBko zinegotziak izan  
ziren bertan. Hauen eta EA-  
ko bi zinegotzien botuekin  
onartu zen mozioa, EAJk  
ezezko botua eman zuen  
eta Alvaro Esparza (PSE-EE)  
ez zen Plenoan izan.

Bergarako Udalak orain  
dela bi urte erabaki zuen  
Eudiman sartu eta elkartea-  
ren estatutuak onartzea, HB  
eta EAren aldeko botuekin.  
EAJ abstenitu egin zen eta  
PSE-EEko zinegotzia eraba-  
kiaren kontra azaldu zen.  
Intsumisioaren inguruko gai  
hauek aztertu diren bakoit-  
tzean, EAJ abstenitu egin da  
edo kontra bozkatu du. Al-  
kateak behin baino gehia-  
gotan adierazi du kontu  
hauek Udalen elkartearen  
(Eudel) bitartez bideratu

daitezkeela eta ez dagoela  
zertan sortu beharrik Udal  
intsumisioen elkarterik.

Justizia Ministerioak eza-  
rritako beste errekurtsok bati,  
hain zuzen ere, Eudimako  
kuotak ordaintzeko Udalba-  
tzak hartutako erabakiaren  
kontraoari, ere aurre egin  
beharko dio Bergarako  
Udalak.

Udalbatzak Eudimako  
kuotak ordaintzeko eraba-  
kia hartuta izan arren, Uda-  
lak ordaindu barik ditu az-  
ken bi urteetako kuotak  
(406.000 PTA). Eudima lega-

lizatutako entitate juridikoa  
dela demonstratu bitartean,  
Euskal Autonomi Erkidego-  
ko ordezkaria Eudel dela  
dio EAJk eta horregatik ez  
dira ordaindu orain arte Eu-  
dimako kuotak.

Aurtengo udal aurrekon-  
tuetan ez zen aurreikusi Eu-  
dimako kuotak ordaintzeko  
diru partidarik. Herri Bata-  
sunak kontradizioa ikusi du  
EAren jokoan, honek udal  
aurrekontuak onartu zitue-  
lako, Eudimako kuotak or-  
daintzeko diru partidarik  
onartu ez arren. B



Eudimako estatutuak onartzeagatik errekurtsua jarri du Justizia Ministerioak.

## Mikel Berasategi aske laga zuten egunean

**Araba** Komandoare-  
kin lotura zuelakoan San  
Jose egunean atxilotu  
zuten Mikel Berasategi  
bergarra libre laga zu-  
ten joan zen egunean,  
Gomez de Liaño epaile-  
ak ezarritako fidantza  
ordaindu ondoren.

Araba Komandoa  
desegiteko San Jose bez-  
perako polizia operazio-  
an zazpi lagun atxilotu  
zituzten Bergara eta An-  
tzuolan. Horietatik lau  
lagun, egun batzuk ge-  
roago askatu zituzten  
eta beste hiru espetxera  
eroan zituzten. Mikel  
Berasategik baldintzape-  
ko askatasuna lortu eta  
joan zen egunean irten  
zen kalera, Carabanche-  
len ia lau hilabete eman  
ondoren. Mari Karmen  
Irizar eta Pilar Agirre es-  
petxean daude.

## San Martinetako danborradako entsaioak

**Irailaren 1ean** hasi-  
ko dira San Martinetako  
danborradako entsaio-  
ak. 19:00etan haurrenak  
eta 20:00etan nagusie-  
nak, Seminarioan.

**AB Asesoresek zuretzat aukeratu ditu...**

munduko inbertsio-fondorik onenak... fondo bakar batean

**AB Fondos RV FIM**

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta informatuko zaitugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 PTA.

**AB ASESORES**



Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz 6, S.Lorentzo industrialdea  
Tf. 943 76 54 35  
20570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>

# Berrigara

332 zenbakia.  
1998ko uztailaren 17a.

**Errotalde Jauregia, 20570 Bergara**  
**Telefona: 943 76 03 97.**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**E.mail: berrigar@sendanet.es**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Jon Larrañaga.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrogara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### MURRIZTUTAKO APARKALEKUA

Poligono aldean bizi naizen herritar bat naiz eta kexa bat plazaratzeko asmoz idatzi dut honako eskutitz hau. Kontua da gure auzoan ere zenbaitetan aparkatzeko arazoak izaten direla eta, beraz, primeran etorri zitzaigun San Martin eskola atzealdean egokitutako aparkalekua.

Hala ere, handik gutxira, roulotte bat daukan herritar batek bertan aparkatzea erabaki zuen eta asteak pasatu dira roulottea bertan mugitzeke, egunero kotxea aparkatu behar izaten dugun gidarien kalterako. Hori gutxi balitz, beste norbaitek gauza bera egin zuen, aspaldi honetan bi roulotte daudelarik bertan aparkatuta. Roulotteak bertan lagatzeko toki aproposa ei da San Martin ikasketeko atzealdea.

Udaltzain bati zer gertatzen ari zen komentatu nion eta berak arrazoia nuela baina horri buruzko inolako ordenantzarik ez dagoela erantzun zidan. Uste dut, horrelako jokaerekin, egunero kotxea erabili behar izaten dugunoi egiten zaigun kaltea bistan dagoela eta roulotteak geldirik izateko badirela beste toki aproposagoak. Be-

raz, dagokionari, beharrezko neurriak har ditzan eskatuko nioke. Besterik gabe, mila esker.

M.I. (N.A.N.: 15.322.921)

### ESKERRIK ASKO GUZTIOI

Bergarako Beti Busti kirol elkarteak antolatuta, joan zen domekan, uztailak 12, izan zen "Saturraran Deba V. Piraguako Itsas Bidaia" delakoak sekulako arrakasta izan zuen.

Piraguako itsas bidaia guztian zehar, bi zodiak izan genituen laguntzen, bata Gurutze Gorrikoa eta bestea Mutrikuko DYAKoa. Bestalde, Bergarako Surra Irratizale Elkartekoek errepidez egin zuten trabesia, horrela etengabe, irratiz, Debako hondartzan kokaturik zegoen megafoniaren bidez gertaeren berri izan zuten.

Parte hartzeari buruz, esan behar da, 60 piraguietak eman zutela izena eta guztiek amaitu zutela trabesia. Lurralde guztietako partaidetza izan genuen: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Santander, Iparralde... (Hendaiaiko talde oso bat agertu zen).

Irteera goizeko 11:00ak aldera izan zen eta lehendabiziko piraguietak 30 minututan

amaitu zuen froga, azkenak ordu bete eta 15 minutu erabili zituelarik. Amaitzeko, Debako hondartzan surf demostrazioa izan genuen eta, ondoren, sekulako hamarretakoa.

Lerro hauen bidez, gure eskertza adierazi nahi diegu hauei guztiei: Bergara, Deba eta Mutrikuko udalei, Debako Udaltzaingoa, Debako Gurutze Gorria, Mutrikuko DYA, Bergarako Surra Irratizale Elkartea, Bergarako berriemaleek (Arrate Irratia, Loliola Irratia, Berrigara, El Diario Vasco, El Correo, Egin), Gipuzkoako Piraguismo Federazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta beraien laguntza eskaini digutenei eta parte hartu duten guztiei.

Beti Busti Piraguismo  
Kirol Elkarteko Batzordea

### AZKEN ALEA

Eskuetan duzun hau, abuztuko oporraldien aurreko azken alea da. Hurrengo, irailaren 4an, oporren bueltan jasoko duzu. Ordura arte, ondo ibili!

## tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Noiz hartuko dituzu oporrak? Udan zer egiteko asmoa daukazu?



**Aitor Aranzabal**

Hilaren bukaeran hartuko ditut oporrak eta abuztua Irlandan igaroko dut. Ingelesa ikasteko asmoz, bertara joatea erabaki dut. Ez dut Irlanda ezagutzen.



**M. Dolores Clemente**

Uztailaren 24an hartuko ditut oporrak, hilabete oso bat. Oraindik ez dakit zer egingo dugun baina kostaldera joango gara uste dut. Iaz hemen geratu ginen.



**Migel Sagastume**

Oporrak pasatu ditut; orain bi aste Fiteron izan naiz. Udan lan piskat egin behar. Gero, irailean 10 egun hartuko ditut Galiziara joateko. Baina ondoen, bertan.



**Pilar Neyra**

Astebeteko oporrak hartuko ditut eta Galiziara joango naiz, han familia daukat eta. Zortzi urte dira ez naizela Ourense egon eta gogoa daukat.



**Luis Rodriguez**

Abuztuan hartuko ditut oporrak eta Errusiara bidaia bat egiteko asmoa daukat, Moscu, Leningradio etab. bisitatzeko. Orain urte batzuk ere izan nintzen.



**Jesusa Osoro**

Irailean hartuko ditut eta asmoa daukat irailaren hasieran Malagara joateko, gizonarekin. Egoteke nago eta badaukat gogoa. Abuztuan hemen geratuko naiz.

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Maria Ugalde** zuzendu da aste honetan BERRIGARARA komentario bat azaltzeko. Mariak uztailean, goizez, igerilekuetara joateko ohitura dauka eta faltan botatzen du bertan telefono publiko bat. Agorrosin inguruan dagoen telefono bakarra tabernakoa dela diosku eta pisinetan horrenbeste jende biltzen denez, ez zaio nahikoa iruditzen. Mariaren arabera lehen kabina bat omen zegoen pisinetako sarreran eta ez du ezagutzen hura kentzeko arrazoia. Pisinetatik deiren bat egin behar duenean mobilik ez izatea damu du Mariak, askotan jende ilada luzea izaten baita tabernako telefonoa hartzeko zai.

■ ikuspuntua: **nora palmitano**

### Justizia



Justizia da begiak estalita dituena. Inpartzialitatea ziurtatzeko estali ditu begiak. Bada, horrenbeste begirune merezi duen emakumea oportan izango da nonbait. Duela hilabete batzuk, Justizia andereak -edo oporraldi honetan ordezko izan duen langileak- ETArekin finantza sareari mordera kendu omen zion. Behintzat, horrela azaldu ziguten komunikabideek. Lerro hauek idaztean operazio horren bigarren atalari ekin dio Garzonek, Justizia anderearen ordezkoa hain zuzen, EGIN Egunkaria eta Irratia itxi, isilaraziz. Kolpe garrantzitsua, mortala ez bada, erakunde armatuztat. Horrela azaldu baitigute komunikabideek. Ez legoke soberan bi kasuak alderatzea:

1. AEKko Iker Beristainen atxiloketa aitzakitzat hartuta, Donostiako AEKren bulegotik ekonomia gelako paper eta ordenagailuz gain, beste ordenagailu guztien memoriak kopiak eraman zituen epaileak. Horren aitzakiz eta AEKri inolako jakinarazpenik egin gabe enbargoa agindu zuen. Hau partzialki jasota dugu dagoeneko.

2. Gaur goizaldean, EGINen egoitzetan beste horrenbeste egin du epaileak. Hamar baino gehiago atxilotu, errotatibak eta irratiko tresneria ezdeus bihurtuak.

Oraindik ez dakigu Ikerrengatik AEK blokeatu duten, ala AEKgatik Iker atxilotu duten. Bigarren kasuan langileengatik EGIN egunkaria eta irratia -eta bide batez Euskaldunon Egunkaria ere, errotatiba horiekin funtzionatzen baitute-; ala langileak EGIN -eta bide batez Egunkaria- ixilarazteko; ala ixilarazteko, atxilotu. Donostiako AEKren funtzionamendua ezagutzeko ez zuten ez papelik, ezta ordenagailurik ere eraman behar. Badute, eta gela bertan bazegoen memoria guztien kopiak egiteko "zip" delako tresna. Baina papalak eta datu-rik gabe funtzionatzen jarraitzea ez da batere erreza. EGINen kasuan, beste horrenbeste. Azal diezadala norbaitek tresneria hondatzeko arrazoia. Justizia anderea estalkia kentzeko prest ez badago, ken ditzagun guk gureak. Ordua da! B

■ asteko menua: **ostatu jatetxea**

## Galeperrak saltsan



ARANTXA ARETXAGA  
*Ostatu jatetxeko sukaldaria*

### OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 8 galeper
- 2 kipula haundi eta txalote pare bat
- 2 azenario
- 6 berakatz buru
- Porru bat (zuria)
- Hirugihar zati bat
- Perretxikoak
- Basokada haundi bat ardo zuri, sikua
- Koñak txorrostada bat

### PRESTAKETA

- Galeperrak ondo garbitu eta alkoholarekin erre, lumak ondo kentzeko.
- Egin gatza galeperrei, hirugihar zatiekin bete eta, gero, lotu.
- Gradu bateko oliba olio lapiko batean berotzen ipini eta galeperrak ondo gorritu arte sutan eduki.
- Barazkiak txikitu eta galeperrarekin batera potxatzen ipini. Egiten dagoela, ardo zuria eta koñak flanbeatua gehitu.
- Denboratxo bat sutan eduki ondoren, haragi edo oilo salda gehitu eta galeperrak ondo bigundu arte egosten laga.
- Barazkiak txinotik pasatu eta gatz puntua hartu.
- Zartagin batean, perretxikoak eta ogi-xerra frijituak salteatu.
- Bukatzeko, plater batean galeperrak ipini, saltsa gehitu eta perretxiko eta ogi-xerrekin apaindu.

■ adituen esanetan

## Pikatadak

VICTOR IRIGOIEN, *medikua*

Uda garaian urtero errepikatzen den arazoa dugu pikatadana. Pikatadak ez dira arriskutsuak eta kontsultara oso kasu gutxi iristen dira. Egin dezakegun gauza bakarra neurri prebentiboak hartzea litzateke. Horrela, gaur egun, intsektuen pikatadengatik babesteko oso krema egokiak daude eta, beraz, nahiko erreza izaten da eltxoak, erleak, liztorrak etabar uxatzea. Horrelakoak ugaltzen diren tokietan (mendian, kanpinetan eta abar) komenigarria izaten da produktu horiek erabiltzea, gaua lasai igaro nahi badugu behintzat.

Era berean, behin pikatada jasoz gero, hazkurari zein azalaren hanturari

aurre egiteko krema antiestaminikoak eta kortikoideak aplikatu daitezke. Hiruzpalau egunetan kremak hartzea nahikoa izan daiteke; farmazietan eros daitezke aipatutako kremak. Bestalde, badira pikatadei alergía dietenak ere eta jende horri erroparekin ahalik eta gehien babestuta joatea gomendatzen zaio, praka luzeak edota manga luzeko niki eta alkandorak jantziak, intsektuekiko kontaktua saihesteko. Erreakzio alergiko inportantea dutenek, berriz, badakite pikatadak jasotzeko arriskua duten lekuetara adrenalina anpuluak eraman behar dituztela, erreakzioa ahalik eta azkarren mozteko. B

■ bergarako gordailutik

## BASALGOKO LABADERO ZAHARRA

Imanol Sorondo

**A**aize guztiek jotzen dute Basalgoko gaina. Sasibeltzen babesean eta Garberen magalean egon arren. Bergarar batzuen abizenak auzo eder horretako baserriekin loturik daude, Gallastegi eta Belastegi esate baterako. Bertako ermitak irudi politak dauzka: Santiago erromesa, bi amabirjina, Aingeru Goardakoa eta San Jose, garai desberdinetakoak; sarrera, arku zorrotzekoa da. Santamainako abade bat bertan bizi zen auzoaren zerbitzurako; orain pilota tokia eta soziedadea dauzka eta, toki gehientsuenetan bezala, baserri gutxiago.



Baina joan gaitezen labaderea aipatzera. Ermitaren aurrez aurre biderearen beste aldera, metro batzuk beheraxeago, han aurkituko duzu "Iribeko iturria" izenarekin. Harraska horren harri batean gurutze bat eta 1.611 zenbakia daude landuak. Gauza zaharrak izaten dituzte askotan bere inguruan esaerak eta ipuinak. Arropa garbitoki honetaz esaten da ume bat erori zela uretara eta bertan hil; oroigarri bezala ipini omen zitzaizkion gurutzea eta urtea. Baina, ondo esan liteke auzoko labaderea zela, 1611. urtean egina eta, lehengo iturri askoren antzera, gurutze bat daramala.

Ez dakit nola egongo den orain, erdi sasi erdi belar baitzegoen; hala ere, oso ondo mantentzen zen eta gutxi falta zitzaion zaharberitze bat ematako. Ez dauka haunditasunik bere itxura eta izatean; nolana ere, zenbat topatzen dira gure arteko auzo eta herrietan bera bezain zaharrik? B



## 1953ko bergararrak

Aurten 45 urte betetzen dituzten bergararrek euren **anaiarteko eguna** ospatu zuten joan zen uztailaren 3an. Antxonin egindako afarian 34 lagun elkartu ziren. Afalosteian, bertsotan ere egin zuten zenbaitzuk, gainontzekoen gozamenerako. Umorea nagusi. Goian, bildutakoak afal aurreko argazkian ikus ditzakezue. Datorren urtera arte!!

## San Fermin

Udalekuetako gaztetxoek, eguraldiagatik atzeratu behar izan zen **San Fermin Txiki eguna** ospatu zuten eguakitzean. Plazan ohizko txupinazoa jaurti ondoren, eguerdira arte, jolasekin ederki asko pasatu zuten neska-mutilek. Aurten ere **poni, txekor, oilar edo basurdekumeekin** jolasean aritzeko aukera izan zuten. Txuriz jantzita, zapi gorria lepoan, Iruñeko entzierroetako korredoreen pareko ibili ziren. Plazan antolatutako jaiak ikusle ugari erakarri zituen. Gora San Fermin!!

## San Kristobal

Eguraldi ona eta giroa hobeia izan da astebu-kaeran San Kristobalgora jaietan. Eguakitzean eta domekan, egin ziren ohizko **kotxeen bedeinkapenak** gidari mordo bat erakarri zuen. Argazkian, **Fidel Eizagirre** San Pedroko parrokoak eguakitzean kotxeen bedeinkapena egin zuenean. Eguakitz eta zapatu gauean izandako dantzal- dietan jende asko hurbildu zen




## Zorionak!

Bolintxo-Zurradero okindegiak bere bezeroen artean zozketatutako astebeterako Saloura bi pertsonarentzako bidaia, **Tomas Egureni** egokitu zaio. Zorionak. Udazkenerako, bestalde, **Eurodisneyra bidaia** zozketatuko dute. Argazkian, Tomas Eguren, Bolintxo-Zurraderoko **Eider Arizabaleta**rekin.



## Mariaren Lagundiko logotipoa

**Dani Laskurainek** irabazi du Mariaren Lagundiak eskolaren sorreraren 200. urtemugaren inguruan konbokatutako **logotipo lehiaketa**. Zabalkundea adierazi nahi duen mapa mundi baten gainean Mariaren Lagundiko logotipoa ikus daiteke. 1799 fetxarekin (eskolaren sorrera urtea), egileak joko bat egin du, zazpiaren ordeztu gurutze bat jarritz, eskolaren kristau izaera jasotzeko. Guztira, 12 lan aurkeztu ziren lehiaketara eta irabazleak 50.000 pezeta eskuratu ditu. Urtemugako ospakizunak iragartzekoerabiliko da logotipoa.





# Loramendi kirolak

**ARRASATEN 2 DENDA**

**Zure oporretarako material guztia**


**Abuztuan goizez zabalik**

**11.450 pta**  
Goretex

**10.995 pta**

**4.995 pta**

**9.995 pta**



**ASPERTZEN EZ DUEN ZINTZARRIA**

**Egun osoa euskaraz**

Bertsoak, trikitixa,  
 musika goxoa,  
 herri kirolak,  
 elkarrizketak,  
 kultur saioak,  
 herrietako berriak,  
 umeen irratsaioa,  
 alaitasuna...

Tf. 943 12 0161 Faxe: 943 12 01 73. 212 postakutxa 20600 Eibar.



# DENA AUTO

## 2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilabetekaria.  
1. zerbakiak. 1998ko uztaila.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe.  
Tirada: 11.400 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.

Dena Auto, 2. eskuko automobilen gida, Deba Garaiko erabilitako kotxeen gida duzu. ARRASATE PRESS eta BERRIGARA astekariek hilean behin argitaratuko duten gehigarria.

Lehen zerbaki honetan, Arrasate, Antzuola, Bergara, Eskoriatza eta Legazpiko auto saltzaileen 2. eskuko berebilen eskaintzaren berri izango duzu. Hurrengo zerbakietan, Deba Garaiko beste herrietako auto saltzaileek aukeran dituzten erabilitako autoen eskaintza egingo digute.

Orrialde hauek Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara helduko dira eta, beraz, **35.000 INGU-RU IRAKURLEK** izango dute Dena Autoren berri.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
<b>AUTOLEYMA.</b> Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30				
Peugeot 806 ST 2.0			IZ, KE, LD, AG, Ispilu elektrikoak	Interesgarria
Peugeot 406 ST 1.8			IZ, KE, LD	Interesgarria
Peugeot 406 SVDT			Airbag bikoitza, LD, KE, IZ, KL	Interesgarria
Peugeot 306 XN 1.4			3 ate, kolore zuria	Interesgarria
Peugeot 205 Mito Diesel			IZ, KE, LD	Interesgarria
Peugeot 106 Sketch 1.1			3 ate, kolore zuria	Interesgarria
Peugeot 406 ST DT Break 1.9			IZ, KE, LD, AG	Interesgarria
Renault Twingo			3 ate, kolore granatea	Interesgarria
Renault Express Gasolina				Interesgarria
Citroën C-15 D				Interesgarria

<b>BERGARA AUTOAK.</b> Amillaga 10. Bergara. Tf. 943 76 04 58				
VW Golf GT-TDI	Berria	1994	KE, IZ, 5 ate	Interesgarria
VW Golf GT-TDI	Berria	1994	IZ, SE, IK	Interesgarria
Audi A4 TDI	Berria	1996	ABS, Airbag, KE, IZ, IK	Interesgarria
VW Transporter 2.4 Diesel	Berria	1994	LD, 5 plaza	Interesgarria
Renault Laguna Diesel Familiar	Berria	1996	KE, IZ, LD	Interesgarria
Audi 80 TDI Familiar	Berria	1993	AG, IZ, LD, IK	Interesgarria

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak



**TXURRUKA AUTOAK S.L.**  
Auto-errekantbioak  
Ibargarai 33, behea. BERGARA  
943 76 29 95



**AGUSTIN**  
Automobilaren  
karburazio eta  
elektronika   
Uribarri etorbidea 16.  
Arrasate. 943 79 73 58



**AUTO DESGUACES  
BERGARA**  
943 76 35 47 (desguazekoa)  
943 79 76 33 (etxekoa)  
BIGARREN ESKUKO PIEZAK  
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK  
GRUA ZERBITZUA



**TXURRUKA AUTOAK S.L.**  
• Garajea  
• Garraio zerbitzua  
• Taxi zerbitzua  
Aitziturri 5. San Lorenzo. Bergara.  
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

**BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43**

Opel Omega 2.0i GLS	Z-AJ	1990	AG, LD, KE, IZ, LKA, IK, Check Control, Ordenagailua	850.000
Audi 80 1.8 i E	SS-AB	1988	LD, KE, IK	750.000
Ford Mondeo 2.0 i Guia	SS-AP	1993	AG, LD, KE aurr./atz., IZ, LKA, ABS, Check Ctrl, Ord.	1.700.000

**GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 929 43 74 12**

Opel Monterey 4x4	SS-AM	1992	Gris iluna, 90.000 km, Full equiped	2.700.000
Suzuki Vitara	VI-N	1993	Gorria, HT	1.300.000

**ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49**

Opel Astra TDS		1996	4 ate, LD	Interesgarria
Fiat Punto 75S		1995	3 ate, Airbag	Interesgarria
Renault 21 1.7 Manager		1992	LD, KE, IZ	Interesgarria
VW Golf GTi		1989	3 ate	Interesgarria
Opel Corsa GSi		1991	Hainbat osagarri	Interesgarria
Citroën AX 1.1i		1994	5 ate, kilometro gutxi	Interesgarria

**LENIZ GARAJEA. Aingeru ibiltokia 31. Eskoriatza. Tf. 943 71 50 61**

Renault 19 TXE		1989	IK, AL	575.000
----------------	--	------	--------	---------

**MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44**

Ford Scort Nomade Ghia Di		1992	Hainbat osagarri	Interesgarria
Ford Scort CLX 16i		1993	Hainbat osagarri	Interesgarria
Renault R-19 GTD		1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Opel Vectra GT 2.0 i		1992	Hainbat osagarri	Interesgarria
Opel Calibra V-6 2.5i		1995	Hainbat osagarri	Interesgarria
Ford Probe V-6 2.5i		1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Nissan Patrol GR TDi		1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Peugeot 405 TDi		1992	Hainbat osagarri	Interesgarria

**OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74**

Opel Vectra 1.7 TD	SS-AW		Bermatua	2.256.000
Peugeot 205 GT	BI-AY	1989	KE, IZ, LK, LD, IK	450.000
Citroën C15 D	SS-AB	1988	IK	450.000

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
VW Golf TD	SS-AS	1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Audi 200 4x4			Full equiped	790.000
Renault 11 GTS	SS-Z	1987	KE, IZ, IK	185.000

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Opel Vectra 2.000 16V	SS-AK	1991	ABS, AG, IZ, KE	1.000.000
Ford Fiesta XR2i	SS-AD	1989	IK	475.000
Audi 90 2.3 Quatro	SS-AS		ABS, LGT	1.200.000
Citroën ZX 1.6 Aura	M-NZ	1991	AG, IZ, IK	975.000
Citroën C-15 Diesel	SS-AH	1990	IK	525.000
VW Passatt Syncro	SS-AM	1992	LGT, AG, IK	1.150.000
Ford Mondeo 1.8 16 V	SS-AP	1993	AG, IK, IZ	1.350.000


TXOMIN GARAJEA. Lizarraga auzoa 8. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Peugeot 205 Winer	SS-AM		IK	Interesgarria
Opel Kadett 1.6 GT	SS-AH		IK	Interesgarria

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibxigailu zentralizatuak KE: Kristal-jasogailu elektrikoak KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

Zure konfiantzako tailerrak

**Prezio  
URDINAK**



**ANTZUOLA**

- ▼ Txomin Garajea

**ESKORIATZA**

- ▼ Leniz Garajea

**ARRASATE**

- ▼ Auto Electricidad San Andres
- ▼ Muru Autoak
- ▼ Auto-Reparaciones Arrasate
- ▼ Ibabe Garajea (Peugeot)
- ▼ Ibarra Garajea
- ▼ Kataide Autoak (Fiat-Alfa Romeo)
- ▼ Kanpazar Tailerrak

**LEGAZPIA**


- ▼ Gabiri Garajea
- ▼ Gurtzain Garajea
- ▼ Legauto Norte 95 (Nissan)

**BERGARA**

- ▼ Markiegi Autoak
- ▼ Lagun Garajea
- ▼ Blanco Tailerrak (Nissan)

**Ez duzu  
gure prezioak baino  
hoberik!**





# Prezio URDINAK

Tailer profesionalak

## ESKAINTZA BEREZIA

### PLUS BATERIA +

garantiarik haundiena

**8.560**

PTA-tik aurrera



## ESKAINTZA BEREZIA

### OLIO ETA IRAGAZKI

### ALDAKETA

**6.440**

PTA-tik aurrera



## ESKAINTZA BEREZIA

### AMORTIGUADOREAK

2 urteko garantia

**6.935**

PTA-tik aurrera



## ESKAINTZA BEREZIA

### BALAZTEN PASTILA

### ETA DISKOAK

DIAGNOSTIKOA BEGAN

**3.870**

PTA-tik aurrera



## ESKAINTZA BEREZIA

### PNEUMATIKOAK

MUNTAIA 810 PTA

**5.220**

PTA-tik aurrera




## ESKAINTZA BEREZIA

### IHES-TUTUAK

Markarik onenak

**6.265**

PTA-tik aurrera



## ESKAINTZA BEREZIA

### SUPER ERREBISIOA

**32** azterketa-puntu

**6.845**

PTA-tik aurrera



**Eska  
ezazu**



**Eta eroso-eroso  
ordaindu**



# Urpeko isiltasunean

## Herrian ere badira urpekariak



**Urpean igeri egitea, norberaren arnasa bakarrik entzunez, esperientzia liluragarria dela diote kirol mota hau praktikatzen dutenek. Itsas barrenean mundu ezezagun bat aurkitzeko ustea izaten da eta bertan kolore eta forma guztietako arrainak, koralak, landarak eta gure jakinmina asetzeko moduko beste hainbat altxorrekin egin dezakegu topo.**


**U**rpean igeri egiteak hazkundera nabaria izan du azken urteotan eta gure herrian ere badira neoprenozko jantzia eta oxigeno-bonbonarekin itsas barrenean murgiltzen direnak. Alfonso Ena eta Jon Larrañaga esate baterako mundu guztiko itsasoetan ibilitakoak dira: Mauricio Irletan, Dominikar Errepublikan, Mexikon, Balin... Ordu asko eman dituzte urpean eta esperientzia-dun urpekariak direla esan genezake. Jon Larrañagak adierazi digunez uda aldean aprobetxatzen dute horretarako, buzeatzeko toki aproposak ezagutzeko. Mutrikuko Buceo Euskadi taldeko kideak dira biak eta dagoeneko hamar

bat urte daramatzate urpean igeri egiten. Alfonso Enak azpimarratzen duen moduan, "honetan hasteko abentura eta natura gustokoak izatea nahikoa da. Bestalde, ez da beharrezkoa fisikoki primeran egotea. Hori baino garrantzitsuagoa da urpean lasai egotea. Hasieran, oxigenoa, denbora eta zurekin dauden urpekariengandik gertu egotea kontrolatu behar izatean, nahiko normala da urduri samar ibiltzea. Baina behin urpean hainbat aldiz murgildu eta gero, gauzak lasai egiten ikasten da. Beti dago sare edo arrantzaleren baten pitarekin katiatzeko arriskua; horrelakoetan lasai egon behar da. Inportanteena zera da: erreguladorea ahoan man-

tentzea arnasa hartu ahal izateko. Odol hotza eta autokontrola garrantzitsuak dira. Buzeoa edozeinek egin dezakeen kirola da, uste duguna baino gertuago dagoen mundu ezezagun bat ezagutzeko aukera ematen diguna gainera".

### Itsas barren aberatsak

Orain arte ezagututako lekuetatik, Jonek Cozumel-eko (Mexiko) itsas barrera gorai patzen du; "buzeoa egiteko egon naizen lekurik zoragarriena da. Izugarriko koralezko hesia dago eta argitasuna hain haundia da, uretan 50 metro inguruko bisibilitatea dagoela: meroak gertu-gertuan ikusten dituzu,



Jon Carrañagak ateratako argazki honetan Alfonso Ena Cezumel-eko itsas barrenean ikus dezakezue. Urpean kolore eta forma guztietako arrainak topatu daitezke.

tubozko esponjak, koraletan kolore oso ikusgarriak... Kamara edo bideoarekin murgiltzen gara uretan eta zenbaitetan oso irudi ederrak hartzen dira. Arrainei dagokienez, berriz, haundienak Mauricio Irletan ikusi genituen, baina han bisibilitatea eskasagoa da. Balin ere koral oso aberatsak dituzte eta ez dago hain esplotatuta, hango kulturaren itsasoari errespeto handia eta beldur pitin bat diotelako”.

Aurten Maldivasera joateko asmoa daukate. Alfonsoren hitzetan, “buzeoaren egiteko munduko tokirik mitikoenetako bat da. Bertako hainbat irletan urpe-

kariak bakarrik egoten dira eta koral hesia zein banku pelagikoak oso aberatsak dira; koral hesietan tamainu txiki-kololetako arrainak egoten dira eta banku pelagikoetan, berriz, animalia haundiagoak, tiburoiak, etabar”. Alfonsok badaki tiburoiengandik gertu egotea zer den, Galapagos irletan hain zuzen; “hura ere buzeatzeko toki bikaina da eta Galapagos izenarekin ezagutzen diren irlengandik nabigazio egun batera oso aberatsak diren bi irla aurkitzen dira. Bertan mailu-tiburoi taldeak egoten dira (dozena batekoak edota baita 100 tiburoietako bankuak) eta 3 metro inguruko luzera duten animaliak alboan izatean, hasieran nahiko gogorra egiten da. Baina gero nolabaiteko errespetoa dizutela (ez dakit botatzen ditugun burbuilengatik izango ote den)

**“Urpean, oinarrizko neurri batzuk bete behar dira segurtasunez ibiltzeko. Odol hotza eta autokontrola garrantzitsuak dira sustorik ez izateko” ALFONSO ENA**

## Buzeo, modako kirola

Asier Linazisoro Mutrikuko Buceo Euskadi taldeko instruktorea dugu. Bere hitzetan, “buzeo nahiko modan jarri da azkenaldian eta, normala denez, uda partean gehiago dira ikastaro bat egitera animatzen direnak”. Asierrek eta bere lankideek urte guztian ematen dituzte urpean igeri ikasteko ikastaroak; “ikastea oso erreza da, zortzi bat egunetan klaseak izatea nahikoa izaten da, 60-80 ordu bitartean. Ikastaroaren prezioa, berriz, 45.000 pezetakoa izaten da, materiala barne”. Buzeorako ekipo batek, berriz, 100.000 pezetatik gora balio dezake.

Ikastaroetan teoria eta praktika tartekatzen dira. Asierren arabera ikasteko ez da behar aparteko kualitatetik, “gogoia izatea da garrantzitsuena. Denetarik jendea etortzen da; beti ere sasoi onean baldin bazaude haize gutxiago gastatzen duzu eta urpean denbora gehiago egon zaitezke baina ez da behar ezer berezirik urpean ibiltzeko”. Buceo Euskadi taldekoek, nolabait, jolasarako buzeoa egiten dute; “helburua itsas barrenean dagoen aberastasurekin gozatzea izango litzateke, ezezaguna den mundu hori piskat ezagutzen hastea, arrainak eta landarak

identifikatuz. Segurtasun osoz ibiltzeko, gehienez, 24 metrotera jeisten gara”. Asierrek urpeko isiltasuna eta grabitaterik eza goraipatzen digu; “guztiz erlajantea da”. Segurtasun neurriak zaintzea gomendatzen du “itsaspean arazorik txikiena ere haunditu egiten delako. Urrezko neurri batzuk hartuz gero arazoak ekiditea erreza da. Oso garrantzitsua da itsas barrenetik igotzerakoan abiadura egokian egitea, deskonpresio arazorik ez eukitzeko. Bestalde, itsasoko faunari dagokionez, zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta aberasgarriagoa izango da urperatzea. Eta arrainekin ez izan beldurrik; tiburoiekin esaterako, 150 tiburoi mota daude eta arriskutsuak bost bat dira. Funtsik gabeko beldurra izaten dugu askotan”.

Asier, besteak beste, Maldivasen, Kanarrietan eta Itsas Gorrian ibili da buzeatzen eta, kalitatea eta prezioari begiratuta, tokirik onena Itsas Gorria dela dio; “hala ere, gertuan, Mediterraneoan ere oso toki onak daude: Medas irlak Katalunian, Colombreres irlak Murtzia aldean...”. Azkenik, ikastaroaren bat egin nahi izanez gero nazioartean homologatutako zentruetara jotea komeni dela aipatzen du. B



konprobatzen duzu eta nahiko lasai ibiltzen zara beraien artean. Ez badiezu ezer egiten eurek ere pakean uzten dizute”.

### Modako kirola

Buzeoa indarrean dagoela diosku Alfonsok; “gu hasi gineneke garaian lau katu besterik ez ginen eta gaur egun, berriz, nahiko talde dira gure inguruan: Zarautzen, Hondarririn, Mutrikun... Astebukaerero irteerak antolatzen dira eta horrek aukera ematen dizu honetan dabilen beste jende bat ezagutzeko. Lehen baino aukera eta baldintza hobegoak daude buzeorako. Pentsa, orain urte batzuk bonbonak kargatzeko ere arazoak izaten genituen...”. Hala ere, Alfonsoren arabera, gure kostaldearen egoera ez da nahi bezain ona urpean aritzeko; “hemen ez daukagu itsaso egokirik, itsasoa nahiko harro egoten delako eta, beraz, bisibilitate gutxi izaten delako. Bataz beste, 10 metro inguruko bisibilitatea izaten da; Mediterraneoan, berriz, 20 bat metrokoa da eta Itsas Gorrian 50 metrokoa izaten da batzuetan. Aurki daitezkeen arrainei dagokienez, hemen ez da gauza haundirik, Kantabrikoa nahiko agortuta dago”.


Buzeoa egiten dutenen arabera buzeoa egitea ez da zaila baina beharrezkoa da titulazioa izatea menperatzen ez dugun medio batean zer egin jakiteko. Jonek aipatzen digunez, “arriskua hor dago baina oinarrizko neurri batzuk betez gero ez daukagu zertan estuasunik pasaturik. Buzeatzerakoan urpean daramazun denbora eta sakonera hartu behar dituzu kontutan. Deskonpresioak noiz egin jakin behar da. Irtetzera koan superfiziera azkarregi igotzen baduzu, nitrogenoa askatzeko denbora nahikoa ez baduzu hartzen, deskonpresio arazoa izan dezakezu eta hori

nahiko larria gerta daiteke. Guk ordenagailu bat eramaten dugu, erloju moduko bat, segurtasun osoz sakonera bakoitzean zenbat denbora egon gaitzkeen iragartzen diguna”. Kariben 15 metroko sakonera ibilitakoak dira eta Kanarietan, berriz, 42 metroraingo jeitsi behar izan zuten “altxorren” bat topatu ahal izateko; “oso behera jeitsiz gero mareo sentazioa haundituz doa, arnasa hartzeko zailtasun gehiago izaten delako. Hamabost bat metroan ibiliz gero, ordubete inguru ematen dugu ur azpian eta zenbait egunetan hiru buzeo saio egiten ditugu. Uraren tenperaturak ere zerikusi handia dauka; ur hotzarekin askoz gehiago erretzen duzu, oxi-

geno gehiago kontsumitzen duzu ur berotan baino. Karibearen urak, bataz beste, 30 gradu inguruko tenperatura izaten du eta guztiz erlajatuta irtetzen zara itsasotik. Pentsa, hiru orduko sies-tak botatzen ditugu uretan ibili ondoren...”.

Biak bat datoz urpeko lasaitasuna, goraipatzeko orduan: “norberaren arnasketa besterik ez da entzuten, begi aurrean paisaje oso erakargarria duzularik. Beste mundu batean egotea bezalakoa da, grabitaterik gabekoa eta oso sentazio atsegina da hori. Itsas barrenean gauza ikusgarriak aurkitzen dira eta benetan esperientzia guztiz gomen-dagarria da”. B

***“Itsas barrenean norberaren arnasketa besterik ez da entzuten, begi aurrean paisaje oso erakargarria duzularik. Beste mundu batean egotea bezala da” JON LARRAÑAGA***



**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

**Deco-Textil  
ZANGITU**

Exterako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta  
ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, eta abar.

**Herrilagunak 3-5**  
☎ 943 76 08 69

**Gallastegi**


*Jostundegia*

Mahoizko lanerako jantziak

**San Pedro** ☎ 943 76 10 85

# I P I N T Z A K O

## futbol txapelketa



### partiduak

#### NESKAK

##### Eguaztena 22

##### Kadete mailako finala:

18:30: Baleike-Azkenak

##### Nagusien mailako finala:

19:45: Potzu Ta Zapaburuak-Gamma Rai

#### MUTILAK

##### Eguakitza 17 (Final laurdenak)

19:15: Bildurbarek Opel/Lam-Matxakategi

20:30: Arloteak Oilagorra-Altos Pornos

##### Astelehena 20

19:30: Final erdiak

##### Martitzena 21

19:30: Final erdiak

##### Eguakitza 24

19:30: Finala (Agorrosinen)

### emaitzak

#### NESKAK

Las Rascamantas-Baleike	6-8
Eztaki-Biko Bokategia	0-8
Gamma Rai-Potzu Ta Zapaburuak	1-1

#### MUTILAK

La Juve-Amilotx	0-5
Fo Fo Fo-Facuta	0-0
Gu Geu-La Beccia Kukuxumuxu	0-3
Bildurbarek Opel/Lam-Game Over	14-1
Altos Pornos-Osintxu	1-0
Ezinleike-Xurruapak	0-2
Matxakategi-Insert Koin	5-1
A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Arloteak Oilagorra	1-2

### argi

Atzo, eguena, jokatzekoak ziren mutilen txapelketako lehenengo final laurdenak; gaur, ostera, jokatuko dira beste bi partiduak. Datorren astean final erdiak eta finala (egukitzean Agorrosinen) jokatuko dira. Esan daiteke, final laurdenetarako faborito nagusiak sailkatu direla, baina izan da ustekabekorik: Amilotx eta A Ze Flaxa La Guipuzcoana kanpoan geratu baitira. Neskei dagokienez, datorren eguaztenean jokatuko dira finalak Ipintzan.

### jokoz kanpo



**Etor Sarasua**  
FO FO FO

G. Nola zabiltzate?

E. Gaizki sailkatuta gaude. Ondo jokatzen ari garela uste dut baina zortea ez daukagu alde. Hiru partiduak galdu ditugu. Punturik gabe gaude.

G. Hobe aritzea espero zenuten?

E. Lehendabiziko urtea da eta ez genekien nola ibiliko ginen.

G. Zein postutan jokatzen duzu?

E. Atzean, erdialdean.

G. Nesken partidurik ikusten al duzu?

E. Ez. Gure partiduak jokatzeraz bakarrik etortzen gara.

G. Zure taldearen gauzarik onena?

E. Lagun giroa.

G. Eta txarrena?

E. Ez ditugula golak sartzen.

G. 1etik 10era, zure taldeari zenbat?

E. 7

G. Txapelketa irabazteko faboritoa?

E. Ez dakit. Ez ditut taldeak ezagutzen.

G. Txapelketako jokalaririk onena?

E. Nire taldetik, Haritz Gallastegi.

G. Nori sartuko zenioke gola gustora?

E. Hurrengo partiduko aurkariei.

G. Mundialean ikusi duzun golik onena?

E. Bergkamp-ek Argentinari sartutakoa.

G. Historiako aurrelaririk onenak?

E. Ronaldo.

### golegileak

#### NESKAK

##### Kadeteak

1. Rachel Olabarria	Baleike	21 gol
2. Estitxu Lobato	Las Rascamantas	4 gol

##### Nagusiak

1. Eva Alzas	Biko Bokategia	12 gol
2. Naiara Beistegi	Gamma Rai	8 gol

#### MUTILAK

1. Juan Luis Etxaniz	Bildurbarek	17 gol
2. Iban Etxeberria	Mongatxurak	9 gol
3. Gorka San Vicente	Osintxu	7 gol

### sailkapenak

#### A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Manitou	10	4	16	8
2. KIB	10	4	13	7
3. Angiozar	6	4	17	11
4. Shaktale	3	4	7	12
5. Etengabe	0	4	5	20

#### B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	12	4	17	6
2. Facuta	7	4	8	11
3. Amilotx	6	4	11	8
4. La Juve	3	4	8	14
5. Fo Fo Fo	1	4	5	10

#### C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel/Lam	15	5	28	4
2. Altos Pornos	10	5	15	14
3. La Beccia Kukuxumuxu	7	5	10	12
4. Osintxu	6	5	10	6
5. Game Over	4	5	8	23
6. Gu Geu	1	5	5	17

#### D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak Oilagorra	10	5	12	5
2. Matxakategi	9	5	9	8
3. Xurruapak	9	5	7	8
4. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	7	5	11	6
5. Insert Koin	7	5	8	11
6. Ezinleike	1	5	0	9

### Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	12	4	26	6
2. Azkenak	3	4	5	14
3. Las Rascamantas	3	4	11	22

### Neskak, nagusiak


	P	J	GA	GK
1. Potzu ta Zapaburuak	14	6	19	5
2. Gamma Rai	12	6	20	8
3. Biko Bokategia	7	6	29	15
4. Eztaki	0	6	6	45



Jon Lazkano, eskalatzailea:

## "Telebistarako hurrengo lanak Tibeteraino eramango gaitu"

Bi hilabete inguru ibili da Himalayako Daulag-hiri mendian, TVE2ko **Al Filo de Lo Imposible** saiorako grabaketa lanetan. Une honetan, udarako irteerak prestatzen dabil.



Uda honetan, Jon mundu osoan zehar ibiliko da gidari lanak egiten.

**G.** Zer moduzko irteera izan da?

**E.** Zortzi mila metro baino gehiago dituen mendia da. Eguraldi oso irregularra izan genuen haizearen erruz, batez ere; eta alde batetik bestera ibiltzeak nahiko aspertu gintuen.

**G.** Zenbat lagun joan zineten elkarrekin?

**E.** Horrelako irteeretan, hau da telebistarako lan egiten dugunean, Juanjo San Sebastian, Tamayo eta Inurategi anaiak aritzen gara normalean. Denbora luzea egiten dugu kanpoan eta kasu hauetan, talde ezaguna izatea oso garrantzitsua da. Tamayo, istripu garrantzitsu baten ondorioz nahiko ahul gelditu zen eta ez genuen Inurategi anaiek egin zuten bezala tontorra ikutu. Azken kanpamenduan gelditu ginen. Zorte handia izan zuen eta zorionez ez zitzaion ezer txarrik

gertatu.

**G.** Horrelako irteera asko egin dituzue.

**E.** Bai. Hurrengoan Tibetera joango gara. Behin bakarrik igo den mendi batera goaz. Toki arraro samarrean dago eta ikusi behar da zer gertatzen den.

**G.** Kamara lanak zer moduz eramaten dituzu?

**E.** Irteera ezberdinak izaten dira eta helburua ez

da gailurrera igotzea. Alde batetik kamarak bizkarrean eraman behar dira eta horrek erritmoa moteldu egiten du. Zineko kamarak direnez, pisu handia dute. Bestalde, telebistatik datorrena ez da oso gora igotzen eta askotan grabaketa lanak egin behar izaten dira.

**G.** Eta udan zer?

**E.** Irteerak egiten jarraituko dut. Une honetan

agentzia batean nago gidari lanetan. Zazpi urte daramazkit. Munduan zehar, hilabete eta batzuetan gehiagoko irteerak egiten ditugu. Pakistan, Txina, Tibet, Nepal, India, Birmania, Yemen eta beste hainbat tokitan ibiltzen gara.

**G.** Toki asko ezagutuko dituzu dagoeneko.

**E.** Bai. Tokiak eta kultura ezberdinak ezagutzea polita da. Gure irteerak berezi samarrak dira, normalean bestelako agentziak heltzen ez diren tokietara heltzen garelako. Era berean, ezusteko handiak izaten ditugu. Leinuetan bizi den jende askori ez zaio oso ondo iruditzen gu beraien herria izatea. Behin, harriak bota zizkigute herrira sartzean. Normala iruditzen zait, leinueta jendeak beraien ingurua besterik ez baitute ezagutzen eta kanpoko norbait agertzea arraroa eta arrisku-tsua da. Bestalde, esperientzia atseginak ere baditugu.

**G.** Zer nolako jendea jotzen da irteeretan?

**E.** Batzuetan besteko adina 35 urtetan jarriko nuke baina 50 eta 55 urtekoak ere etorri izan dira. Animatuenak irakasleak dira. B

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



**KORTA-ZAR**  
Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan  
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**PILI GISASOLA**

Santiveri

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.  
☎ 943 76 58 83



Astebukaera honetan ere Gipuzkoako Kopako finala jokatu beharko du waterpolo taldeak.

## Waterpolo torneoa asteburuan

**Aste bukaeran zehar, zapatu eta domekan hain zuzen ere, Bergarako waterpolo taldeak, Santa Marina waterpolo torneoa antolatu du laugarren urtez. Bilboko Ademar, Hernani, Gasteizko Menditxo eta Bergara taldeek hartuko dute parte txapelketa honetan. Finala, igandean izango da goizeko 10:30-etan, kanpoko igerilekuan.**

Zapatuko partiduak, lau taldeen arteko zozketa egin ondoren jokatu dira eta ondorengo emaitzek, hurrengo egunean finalean eta final laurdenetan izango direnak erabakiko dituzte. Gorka Gonzalezek esan digunez, "talde gutxi bildu di-

tugu txapelketa luzea izan ez dadin. Guztiok maila parekatua daukagu eta horrek norgehiagoka interesgarria egingo duelakoan gaude".

### Euskadiko 2. mailan bikain

Duela sei urte hasi ziren waterpoloan jokatzeko. Igeri Elkartean izandako Gorka Gonzalez, Andoitz Gallastegi, Unai eta Aitor Alberdi, Juan eta Javi de Borja, Jorge Perez, Haritz Garcia, Kepa Leturia, Kepa Irizar, Migel Angel Uribealago eta Jon Jauregik, kirola praktikatzeari utzi nahi ez ziotenez waterpolo taldea sortu zuten. Harrez gero, Euskal Herrian zehar ibili dira hainbat txapelketatan. Hasierako urteak gogorrak izan arren, esperientzia jasotzen joan di-

ren heinean, taldearen maila hobetzen hasi da. Horren adibide, Gipuzkoa eta Euskadiko ligan lortutako bigarren eta laugarren postuak dira. "Hasieran partidu guztiak galtzen genituen. Normala da talde berria ginela kontutuan izanda. Praktika hartuz bat, poliki poliki maila igo dugu eta une honetan, euskadiko ligan bigarren mailan jokatzeko ari gara. Mailako talde hobereen artean gaudela uste dut eta lehen postuetan geratzeko aukera handiak izan ditugun arren, nerbioen erruz aukerak alde egin digute".

Urrian hasi zen denboraldia, Gipuzkoako Kopa finalarekin amaituko da. Joan zen zapatuan, Eibarren kontrako partidua irabazi ondoren, finalean, Hernaniren

aurka aritu beharko dira domekan, Ordizian. "Atsedena ondo etorriko zaigu. Astero izan ditugu partidu eta entrenamenduak; bada oportetara joateko garaia".

### Taldea desagertzeko arriskuan

Taldea momentu onean dagoen arren, hurrengo urtean jarraitzeko aukerak murriztak direla esan digu Gorkak. "Aurtengo denboraldian jokalaririk faltan egon gara. Hurrengora begira, taldekide asko kanpoan daude ikasten eta beste hainbat lanean, beraz, bertan beharra lagatzeko arriskua dago. Igeri Elkarteko gazte batzuk animatzen saiatu gara baina ez ditugu waterpoloan hasiteko animoso ikusi". B

## Futbitorako izena emateko epea zabalik

### Labegaraietako

Futbito Txapelketan datorren denboraldirako izena emateko epea irailaren 3an amaituko da. Labegaraieta kiroldegian eman behar da izena eta agiri hauek aurkeztu beharko dira: taldearen izena, jokalarien zerrenda, NANA, eta taldearen ordezkariaren izen-deiturak eta telefonoa. Lagunak Areto Futbol Elkartearen kontu korrontean 21.000 PTA sartu eta Euskadiko Kutzako agiria aurkeztu beharko da. Irailaren 3an bilera izango da Kultur Etxean.

## LIII. Antzuolako Txirrindulari Saria

Domekan, LIII. Antzuolako Saria "Iñaki Lete VI. Oroigarria" txirrindulari lasterketa korritu zen. Beroaren eragin handiak, txirrindulari asko lasterketa uztera behartu zuen. Irteeratik 228 txirrindulari irten baziren ere, 132 heldu ziren helmugara.

23 urtez azpikoentzat izan zen proba honetako irabazlea Caja Rural taldeko Jon Bru beratarra izan zen, 3.04.07 denborarekin. Lasterketa amaieran, Mirari Lete, Iñaki Leteren alabak, banatu zituen sariak. B



Caja Rural-ek lehen eta bigarren postuak lortu zituen Antzuolan.

## Carlos Arnaiz izan liteke BKEko presidente berria

**Carlos Arnaiz**, Bergarako postetxeke arduraduna, izan daiteke BKEko presidente berria. Une honetan elkarrekin gidatzeko aurkeztu den izen bakarra da eta eguaztenean BERRIGARARI Carlosek berak adierazi zioenez, zalantza asko ditu karguari baietza eman ala ez erabakitzen. Atzo, eguena, beste bilera bat egitekoa zen Ipintzako bulegoetan eta, baliteke, ordurako erabakia hartuta izatea.

Elkartearen alde lan egiteko jendea falta dela esan digu Carlos Arnaiz: "desastre bat da, lanerako jendea falta da eta inork ez du erantzukizunik hartu nahi. Orain arte egindakoarekin jarraitzeko jendea egon daiteke, baina elkartean buru-belarri lanean aritzeko prest daudenak oso gutxi dira". Carlosekin batera lan egiteko hitza eman ei dute aurreko zuzendari-tzan lanean aritu diren batzuk eta futboleko talde nagusiko jokalarien guraso batzuk.

Bestalde, Enrike Nieto izango da futbol talde nagusiaren entrenatzailea eta Ander Berraondok, iaz Aloña Mendin aritutakoak eta Ibon Larrañagak, Eibarren jokatzen ibili zenak, datorren denboraldian, seguru-eruenik, Bergaran jokatu dute.

## Kirola Santa Marinako jaietan

**Besteak beste**, kirola praktikatzeko aukera ere zabaltzen digute Santa Marinako jaiak. Waterpolo txapelketaz gain, VII. Boccia txapelketa eta txirrindulari lasterketa antolatu dituzte. Ostiralean, Boccia txapelketa jokatu da 19:30etan Aralar taberna inguruan. Guztira hamasei bikotek hartuko dute parte. Zapatuan junior mailakoentzako txirrindulari lasterketari hasiera emango zaio Matxiategi kalean, 16:00etan. Guztira 200 txirrindulari irtingo dira 103 kilometroko ibilbidea egitera.

## Jende ugari Beti Bustik antolatutako trabesian

60 bat lagunek, 15 Bergarakoak, hartu zuten parte joan zen domekan Beti Busti kirol elkarteak antolatutako Saturrarán Deba V. Piraguako Itsas Bidaian. Piraguistek itxasoan ibiltzeko eguraldi bikaina izan zuten eta lagun arteko giroa nagusitu zen. 30 minutu behar izan zituen Debako hondartzara lehenengo heldu zen piraguistak, bost kilometroko ibilbidea egiteko. Azkenengo heldu zenak, ostera, ordu bete eta 15 minutu behar izan zituen.



**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Erreformatzeko dagoen etxea salgai Barrenkalean. 943 76 29 10.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Antzuola. Amueblatua. 943 76 62 52.

Etxea salgai Aranerren. 943 76 09 24.

Apartamentua salgai Donostian (Egia). 943 43 11 00.

**Errentan emateko**

Pisua alokairuan Alcoceber-en, udan. 943 76 12 14.

Laredo, udan. 943 76 13 86 (gauetz).

Apartamentua Laredon, hondartzatik gertu. 943 79 52 80.

Estudioa Benidorm-en. 943 76 23 43.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

kairuan Masterrekan 150m<sup>2</sup>. 943 76 11 89

Lokala salgai A. Fleming. 943 76 00 84 / 76 35 83.

Bi solairuko txabolak salgai. Ortuarekin, prezio interesgarria. 943 76 07 87.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarak egingo nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Haurrak zainduko nituzke. 943 76 01 84.

Uztailean zehar umeak zainduko nituzke. 943 76 07 50 (gauetz)

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

Neska euskaldun batek egunean ordu batzuetan lan egingo luke. 943 76 23 41 (Ibaxo).

Benidorm. Hondartzatik gertu. 943 74 20 31.

Apartamentua Jacan. 943 76 56 31 (gauetz).

**Errentan hartzeko**

Familia batek etxea hartuko luke alokairuan. 943 76 26 82.

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

Pisua edo logela alokatuko nuke uztailetik aurrera. 943 74 44 44 (lanorduetan).

Pisua hartuko nuke. 943 76 32 57 (David)

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea Torrekuoan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Masterreka. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterrekan salgai. 943 76 24 57.

Salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Bolu. 943 76 51 54.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

**Errentan emateko**

Garajea alokairuan

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 943 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai edo alo-

**POL-POL**  
Taberna  
☎ 943 76 07 78

**TABERNA ZAHARRA**  
*Jatetxea*  
bazkari eta afariak  
Telefona: 943 76 21 21  
ANGIOZAR

**SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK**

**AGENTEA-DELEGATUA**  
*Iraegi Aseguruak*

Ramon Maria Lili 6, behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxa: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00

Arratsaldeetan haurrak zaindiko nituzke. Espe-rientzia. 943 76 03 76 (Maite).

**Eskaerak**

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zain- tzeo irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Pertsona behar da ume bat zaintzeko irailetik aurrera. 943 76 08 47.

Neska euskalduna be- har da etxeko lanak egi- teko eta haurrak zaintze- ko. 943 76 04 56 (gauze).

Umeak zaintzeko neska behar da. 943 76 57 81.

**5. IRAKASKUNTZA**

**Eskaintzak**

Ingeles klaseak ematen ditut. Deitu 943 76 53 88 zenebakira (Rosa).

Ingeles klaseak uztaillean (goizez). 943 76 17 18 (Jesus).

Frantseseko klaseak ematen ditut. 943 76 39 68.

OHO eta BBBko 3. mai- lara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Majjisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. Deitu 943 76 33 26 telefonora.

Ingeles klaseak. Deitu 943 76 25 79 telefonora (Nuria).

Majjisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mai- lara arteko klaseak udan. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klase- ak. Uztaila eta abuztua. Deitu 943 76 24 31 telefonora.

Enpresaritza klaseak ematen dira. Deitu 943 76 05 43 telefonora (Miren).

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Mate, fisika eta infor- matika klaseak ematen dira. 943 76 46 03.

**Eskaerak**

Ekonometriako klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 76 26 82 telefonora (gauze).

Estatistika deskribatza- leko klaseak hartuko ni- tuzke. 943 76 54 58.

**6. AUTOAK/MOTOAK**

**Saldu**

Ford Sierra. 943 76 18 28.

Peugeot 205 gorria. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Remolkea. 1,10 x 1 x 60. Poliesterreko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

Suzuki motorra salgai. 943 76 00 90.

Kotxea (SS-V) salgai. 943 76 36 74 (Jabier).

**7. ANIMALIAK**

**Oparitu**

Txakurkuma. 919 41 44 41.

**8. DENETARIK**

**Saldu**

Orbea Sherpa bizikleta

salgai. 943 76 52 76.

Pianoa. 943 76 51 54.

Depilatzeko makina elektrikoa salgai. Deitu 943 76 46 90 telefonora.

Master Sistem 2 bideo jokoak salgai. 12.000 pezeta. 943 76 06 96.

Razesa errepiderako bizikleta. 58 neurrikoa. 943 76 31 10.

MTB Hook mendiko bi- zikleta berria salgai. 28.000. 943 76 13 33.

Donostian (Amaran) 2 lagun behar ditugu pi- sua konpartitzeko. Deitu 943 79 27 42 telefonora.


Aspes garbigailua sal- gai. Berri-berria. 40.000 pezeta. 943 76 11 11.

Pioneer musika ekipoa salgai. CD eta bozgorai- luekin. 919 41 44 41.

Errepideko bizikleta sal- gai. 943 76 00 56.

**Galdu**

Joan zen asteko oste- gunean erloju bat galdu nuen Martoko-Gabiria tartean. 943 77 91 16 (goizez).



**Langai**  
Euskal Lan Zerbitzua

**FUNDIZIOKO ARDURADUNA**  
Arratia-Nerbioia. 10775/2

**IDAZKARIA**  
Bilbo. 10922/4

**HARRERAGILEA**  
Deba Garaia. 11062/4

**AUTOMOBIL MEKANIKARIA**  
Deba Garaia. 10795/1

**KARROZERITZAKO APRENDIZA**  
Aiala bailara. 8154/4

**2 KAMARERO**  
Urola Kosta. 10882/1

**MULTIMEDIA PROGRAMATZAILEA**  
Deba Garaia eta Bilbo. 945/1

**INJINERIA**  
Madril. 10883/3

**HORMIGOI KORTEKO ESPEZIALISTA**  
Bilbo. 11192/2

**2 IGELTSERO**  
Plentzia/Mungia. 9783/4-10733/3

**SUKALDARITZA LAGUNTZAILEA**  
Urola Kosta. 11136/1

**2 ILEAPAINTZAILE (emakumeak)**  
Bilbo. 9968/1

**LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA**  
Bilbo. 10975/3

**SOLDATZAILE HOMOLOGATUA**  
Cantabria/Araba. 10328/2

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**ARREGUI, E.M.**

**ARROZTEGIA**

ARROZLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**ARRANO**

**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

**EDEL TAPIZDENDA**

*Etterako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

**GOXO-TOKI**

Iraila 3. Tf. 943 76 12 35  
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37  
BERGARA

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA


# Txalaparta argitaletxearen ipuin erotikoen bilduma koordinatuko du J. Martin Elexpuruk

Bestalde, Koldo Eleizalderi buruzko liburua aurkeztuko da hilaren 27an

**Txalaparta argitaletxeak abendutik aurrera argitaratzen hasiko den gai erotikoei buruzko liburu bildumaren koordinatzaile lanak egingo ditu Juan Martin Elexpuruk.**

Bildumako lehen bi liburuak Durangoko euskal liburu eta diskoen azokarako plazaratuko dira: Juan Martin Elexpuruk berak idatzitako nobela eta euskal idazle askoren ipuin berriak bilduko dituen liburua. Juan Martinek ia amaituta dauka bere nobela erotikoa baina ez digu ezer aurreratu nahi izan. "Txalapartak gai erotikoei buruzko bildumaren koordinatzaile lanak egiteko eskaintza egin zidan eta horretan dihardut. Asmoa urtean bi liburu edo argitaratzea da eta genero askotakoak izango dira: fikziozkoak, saiakerak, hiztegiak, nobelak..." esan digu Juan Martin Elexpuruk.

"Literotura bilduma" izenburupean argitaratuko dira liburuak eta 200 bat orrialdekoak izango dira. Euskaraz idatzitako gai erotikoei buruzko lehenengo liburu bilduma izango da. Beste hizkuntza batzuetan horrelako bildumek arrakasta handia izan dute.



## Koldo Eleizalderi buruzko liburua

Bestalde, Sabino Arana Fundazioak bultzatuta, Koldo Eleizalderi buruzko liburua aurkeztuko da hil honen 27an udaletxeko Pleno Aretoan. Datorren

eguakitzean 75 urte betetzen dira Koldo Eleizalde hil zela eta hori dela eta, euskaltzale bergararren bizitza eta obra aztertzen dituen "Luis de Eleizalde un vasco polifacético" liburua aurkeztuko da.

Liburua gaztelaraz idatzita dago eta bi zati nagusi ditu: lehenengoan, Esteban Antxustegi EHUKo irakasleak, Koldo Eleizalderen biografia aztertzen du; bigarreanean, ostera, pentsalari bergararren artikuloak biltzen dira eta Luis de Gezalak bildu ditu.

Liburuen inguruan ari garenez, esan dezagun, San Martinetan argitaratuko dela "Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak" bildumaren bigarren atala. Oraingoan, txondorrak, karobiak eta edurzuloak aztertu dituzte Argiñe Urkiolak eta Amaia Olañetak. B

"Literotura bilduma" izenburupean argitaratuko den bilduma Juan Martinen liburu batekin estreinatuko da Durangon

# NINIKA

Loradenda

LOREAK MUNDU  
OSOAN



INTERFLORA

Obrak direla eta  
uztailaren 20tik 30era  
**DESKONTU**  
HAUNDIAK

## IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27



## PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behe. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

kronika

## "Dana lanbrotuta ikustot"

### Ikuskizun intimista, bariatu eta atsegina

**"Dana lanbrotute ikustot", irudiak, poesia eta musika nahasten dituen muntaia ikusteko, Gartzela Zaharra bete egin zen eguaztenean. Emanaldi bariatu eta atseginarekin gozatzeko aukera izan zuten bildutakoek.**

Gaztelupeko Hotsak ziguaren eskutik, udaberri hasieran estreinatuta zen Soraluzen "Dana lanbrotute ikustot" muntaia. Ordutik, Euskal Herriko hainbat tokitan eman da eta publikoaren aldetik oso harrera ona izan du; eguaztenean azken emanaldia eskaini zen Berrigan. Amaiera ekitaldirako aukeratu zitekeen antzoki egokiena, Mitxel Sarasketa eibartarra kartzelan denbora gehien daraman euskal presoari omenalditxo eskaini nahi izan baitiote muntaiarekin; Mitxelen omenez landutako poemak, irudiak eta abestiak eskaini nahi izan dituzte.

Ikuskizunaren ardatza Joseba Sarriandiaren "Kioromantzidxa" da. Aintzane Astigarragak errezitatzen du poema, Koldo Izagirre, Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarriren poesiei eta Deabruak Teilatuetan taldearen

abestiei paso eman aurretik. Nabarmentzekoa, Amaia Labaienek landutako argi joku gorriskak eta Xabi Ubeda eta Mattinen diapositibak (akuarela modukoak). Era berean, azpimarratzekoa, Koldo Izagirrearen errezitatzeko modua, ahots eder hori batez ere. Deabruak Teilatuetan taldekoek azken diskoko abesti batzuen moldaketa akustikoa egin zuten.

Bildutakoak gustora geratu ziren, emanaldi intimo, labur eta bariatua ikusi baitzuten. Poesia errezitaldia zuzenean jarraitzea ez da erreza; horregatik, testu guztiak biltzen dituen eskuko errebistatxo bana jaso zuten bertaratuak eta hori eskertzekoa da.

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak ziguaren arduradunei proposamen arrisksu eta minoritarioak plazaratzeko duten ausardia aitortu behar zaie. Segi horrela! B



Jende ugari bildu zen eguaztenean Gartzela Zaharrean.

## Irinmodo Antzuolako urtekariaren 10. zenbakia kalean

Gaur, eguakitzan, eguerdian aurkezteko zen Irinmodo urtekaria Antzuolako udaletxean. 1989an argitaratu zen lehen aldiz, beraz, aurten 10 urte betetzen ditu. Azalean, urtez urte argitaratu diren 10 portadak agertzen dira, "10 urte-ale zuekin" izenburuarekin. Errebistak 52 orrialde ditu eta 800 ale kaleratu dira, Antzuolako etxe, taberna, lantegi eta toki publikoetan banatzeko.

10. zenbaki honetan, herriari buruzko hainbat artikulu jasotzen dira. Batzuk, gai historikoei buruzkoak: Gerra zibila, Txarri hiltzia Sarasketa baserrian, Antzuolako bandera, Zurrategi plazako zurratzailea, Telleria/Telleria/Telleteak, "Ameriasuarri!" eskean eta Pilotalekuak mendea bete du). Beste batzuk, ordea, aktualitateari lotutakoak: Non dago Antzuolako intsumiso taldea?, Jaiakak beti jai, Idolazeko lehendakariak diñoa eta Euskal presoak Euskal Herriari. Irinmodok hamar urte hauetan izan duen ibilbideari buruzko artikulua, urtebetetzeko Irinmodo lehiaketa eta komikia ere aurkitu daitezke bertan. Atarikoan, *Kontuola*, BERRIGARAN banatzen den hamabostekariari, ongi etorria egiten zaio.

Fernando Lete, Joseba Lezeta, Beñardo Kortabarria, Iñigo Ramirez de Okariz Telleria, Josuren Murgizu, Jesus Agirre "Etxetxo", Jone Larrañaga, Valen Moñux, Itziar Jauregi eta Marijo Deogracias dira artikuloen egileak eta Idolazek eta presoan aldeko Antzuolako Plataformak ere parte hartu dute. Diseinua eta maketazioa Goio Aranak egin ditu. B



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Laguntza. 2. Fruitu mota. Larre. 3. Urrea bilatzen aritzen den pertsona. 4. Sartu aditzaren infinitiboa. Garai, sasoi. Lehena eta zkena. 5. Edateko gogo. Indonesia. 6. Har ezan! Behi-arraza. 7. Gauza. Euskaraz eta kitto! Kontsonante bikoi-tza. 8. Uranioa. Kontsonante errepikatua. Nahiak. 9. Musika-tresna. Bokala. 10. Abelen anaia. Ibilgailua.


**Goitik behera**

1. Balakuak. 2. Sutegia. Jainko egiptoarra. 3. Sua. Hilobietan. 4. Momentu. Rubidioa. Nortasun Agiri Nazionala. 5. Moluskuen maskorreko barne-geruza ziriska. Boroa. 6. Tona. Gaixoen egoitza. 7. Zamari mota. Beste gainazal baiteraino heldu. 8. Begirada. Biziazen erdian. Norat atzizkia. 9. Urra-tua. Oxigenoa. 10. Zein unetan. Uztaia.

**Soluzioa**

10. Noiz Arkua.  
12. Rat. 9. Uradura. O.  
13. Hegoa. 7. Asto. Ikutu. 8. Soa.  
14. N. 5. Nakarea. B. 6. T.  
15. Gerra. INRI. 4. Une. Rb.  
1. Latsungak. 2. Arragoa. Ra.  
Goitik behera  
3. Hirabha U. 10. Kain. Autoa.  
7. Bai. AEC. R. 8. U. Nn. Gurak.  
5. Egarr. Id. 6. Noi. Bertzua.  
2. Urteetan. 4. Sar. Aro. Az.  
1. Laguntasun. 2. Arana. Sora.  
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

**Non dago iturri hau?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Ostatu** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Jesusa Mujikarentzat** izan da: Iraho jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Jesusari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **San Anton**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**.

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zenbat diru bideratu du Udalak aurren, hirugarren mundurako?  
A- 5.549.999 PTA  
B- 4.956.789 PTA  
C- 5.599.449 PTA
2. Nork irabazi du Mariaren Lagundiaren 200. urteak iragartzeko logotipo lehiaketa?  
A- Mikel Laskurainek  
B- Dani Laskurainek  
C- Xabier Diaz de Zeriok
3. Waterpolo taldeak noren kontra jokatu-ko du domekan Gipuzkoako kopako finala?  
A- Bilboko Ademar  
B- Gasteizko Menditxo  
C- Hernani

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_


Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Gudarien Bide. ELGETA. 943 76 80 23



**Aurtengoa hirugarren uda izango da, Fernando Ugarterekin batera, Igerilekueta-ko tabernan lanean ematen duena. Josean Olabarria (42 urte) ezkondata dago eta bi seme ditu. Sanse, Eibar, Urola edota Bergarako futbol taldeetan aritu zen.**

## Josean Olabarria



**Eguraldi iragarpenak jarraitzen dituzu?**

Hombre!! Nahiz eta gehienetan ez duten asmatzen...

**Zelako eguraldia abuzturako?**

Ea hobetzen den, uztaierako ona iragarrita zegoen eta.

**Lanerako asteko egunik onena?**

Domekan ibiltzen da jende gehien.

**Goiza ala arratsaldea?**

Arratsaldea.

**Bainatzeko aukerarik izaten duzu?**

Ez.

**Piszina ala hondartza?**

Hondartza.

**Gustoko bat?**

Mutrikukoa.

**Tangarik jantziko zenuke?**

Ezta pentsatu ere!!

**Txiringitoak ala tabernak?**

Txiringitoak.

**Eguzkitarako babesik hartzen duzu?**

Bai, 8koa.

**Izozkirik arrakastatsuen aurrean?**

Magnum almendratua.

**Sukaldari ona zara?**

Ez.

**Janari bat?**

Arraina, bisigua.

**Edari bat?**

Ardo beltza.

**Dietarik egiten duzu?**

Gizcndu ezinean nago ta!!

**Zenbat zigarro egunean?**

Pakete t'erdi bat.

**Erretzeari lagako zenioke?**

Medikuak aginduta ez bada...

**Denbora librean zer?**

Palan jokatzeko gustatzen zait.

**Kirol bat?**

Pilota.

**Nork irabaziko du eskuz banakako finala?**

Jokatuko da ala? Belokik bestela.

**Nor ezagutzea gustatuko litzazuke?**

Gil y Gil, *koltxoneroa* naiz eta.

**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**

Pilotako kontuak.

**Zodiakoko zein zeinutakoa zara?**

Aries.

**Bidaia bat nora egingo zenuke?**

Pariseran.

**Telebistako programa bat?**

Felix Linares-ena, ETB-2an.

**Julen ala Jose Felix Guerrero?**

Jose Felix, dudarik gabe. Bestea ez zait gustatzen.

**Nork irabaziko du Tourra?**

Ulrich-ek. Olano, hirugarren.

**Bibotea noiztik?**

18 urte neuzkanetik.

**ARREGI**

**Eraikuntza materialeak**

Bitlegia Tellerian, Labegaraietan.  
Tf. 943 76 27 93

**SUBIJATI**

**Gazteentzako moda**

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41



Amillaga 23, gasolindegi ondoan.  
BERGARA  
943 76 15 59

**GOIZEKO 7 ETATIK GOSARIAK**

Eguneko menua

Kartara

Plater konbinatuak

**Berezitasunak**

- Bakailua pil-pil erara
- Langostinoak
- Iraho erara



Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA ERROTULOAK**

**Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskaparateak...**

**Abuztuan domeketan itxita**

# Antzoulako lagun koadrila Larrionen, 1979



Aste honetan Antzoulako lagun koadrila bat ekarri dugu Erretratu Zaharrera. Argazkia orain dela 21 bat urtekoa da eta Larrionen (Nafarroan) aterata dago, udako oporretan. Abuztuan Larrioneko kanpinera joateko ohitura zuten, nahiz eta kanpinera lo egitera bakarrik agertu, bazkaltzera herriko jendearen etxeetara joaten ziren eta.

Oporraldi horietako batean, Larrioneko gazteen aurka futbol partidua jokatu zuten eta 7 eta 6 galdu zuten.

Kontatu digutenez, ordura arte Larrionen ez ziren herriko jaiak ospatzen eta gure protagonistak joan zirenean, giroa ipini nahian edo, hango gazteei herriko jaiak antolatzea proposatu zieten. Kanpineko taberna zeramanak jarri

omen zuen dirua eta jaietan igeriketa txapelketa, berbena eta disfrazak antolatuz zituzten, beste ekitaldi batzuen artean.

Aspaldian bertara joan ez diren arren, diudenez, Larrioneko jaiak ospatzen jarraitzen dute.

Honako hauek dira argazkian agertzen diren "figuren" izenak:

**Zutik:** Koldo Madariaga, Luis Telleria, Daniel Larrea, Karlos Lizarralde eta Fermin Hernandez.

**Makurtuta:** Jose Mari Igartza, Pelos (bilbotarra), Gurutz Madariaga eta Tomas Agirre.

*Argazkia: Koldo eta Kruz Madariaga*

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



# Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



# MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

## merezi dute

### Aldatu zaitez MAPFREera

### Azkartu



### itzazu zure bonifikazioak

**Orain** zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**

**Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria). Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzengan.**



## MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

jam-kafetegiko terrazan  
 eguakitzetik aurrera,  
 uztailak 17,  
 txitxarroa, zaharraren  
 txuletak eta oilasko erreak.

## MERKE ETA ONAK!

## UDA GUZTIAN.

Zatoz **jam-eko** parrila  
 probatzera!



# JAKINA


FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak  
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.



**6** URTEKO  
GARANTIA



Sukaldeko altzariak